

Legegintzaldi berri baten hasiera



Legegintzaldi berria hasiko da bihartik aurrera Durangaldeko udaletan. Panorama politiko berria zein izango den erabakiko da udalbatza bakoitzean. Durangon, Elorrion, Berrizen eta Zornotzan akordioetara heltzeko negoziazio asteak izan dira. Batez ere Durangon eta Abadiñon gertatuko denak piztu du jakin mina. • 7



Elkarte berri bat sortu dute Zornotzan: Elkar Laguntzen

Zornotza • Pobreziari eta bazterkeriari aurre egitea dute helburu. Arrisku egoera horretan egon daitezkeen herritarrei laguntzen diete informazioa eta arreta emanda. • 4

"Indibidualismoa barik, mentalitate komunitarioa sustatu behar dugu: sare soziala, baina digitala barik, fisikoa"

Erreportajea • Elorriko Herrizaintza proiektuak urtebeteko bidea egin du gura bako bakardadean bizi diren herritarren bakardade sentimendua arindu eta inklusioa sustatzen. Herriko boluntario talde batek bakarrik bizi diren herritarrei laguntzen diete astero-astero, telefonoz. Iker Pinilla Pérez da zerbitzuaren koordinatzailea. • 2-3



Gehigarria



Berrizko,
Apatako eta
Axpeko jaiak
2023

**Iker Pinilla Pérez**Elorrioko Herrizaintza
proiektuko koordinatzailea

BERRIZ | 1983

“Auzolanaren kultura errepide bat konpontzera edo herri bazkari bat antolatzena mugatu barik, zaintzara ere zabaldu behar dugu”

Elorrioko Herrizaintza proiektuak urtebeteko bidea egin du gura bako bakardadean bizi diren herritarren bakardade sentimendua arindu eta inklusioa sustatzen. Iker Pinilla Pérez da zerbitzuaren koordinatzailea

BAKARDADEA • EKAITZ HERRERA

Iker Pinilla Pérez (Berriz, 1983) Elorrioko Herrizaintza proiektuaren koordinatzailea da. Agintzari kooperatibarentzat lan egiten du eta honako hau da bere eginkizun nagusia: gura bako bakardadean bizi diren elorriarrak modu komunitarioan zaintzeko dinamikak sustatzea. Bide horretan eragiteko asmoz, Elorrioko Udalak Herrizaintza proiektua ipini zuen martxan iaz. Orduetik hona, Pinilla eta herriko boluntario sare bat telefono bidezko arreta eskaintzen ibili dira, bakardadean bizi direnekin entzute aktiboa egiten eta elkar zaintzearen kultura sustatzen. Aurrerantzean ere proiektuagaz jarraituko dute.

Urtebete pasatxo igaro da Herrizaintza proiektuari ekin zeniotenetik. Zelako bilakaera izan du proiektuak?

Positiboa. Helburuetariko bat kontzientzia sortzea izan da, herritarrek eta komunitatea sentsibilizatzea. Alde horretatik, proiektuan esku hartzen duten hiru ardatzak batzea lortu dugu. Batetik, herrizainak daude, bizilagunen bat gura bako bakardadean egon daitekeela detektatzen dutenak. Osasun etxeko erizainak, botikariak, udaltzainak, dendariak, auzo alkateak eta herritar batzuk daude horien artean. Bestetik, talde motorea dago. Gizarte Saileko zinegotzia, gizarte teknikaria eta

ni neu gaude hor. Herrizainek guri jakinarazten digute herritarren bat gura bako bakardadean dagoen. Azkenik, boluntarioak daude. Hauek dira zerbitzua aurrera eramaten dutenak. Bakardadean daudenekin hartu-emanetan ipintzen dira astean behin, telefonoz. Euren eginkizuna bakardade egoera leuntzea, beharrezkoak identifikatzea eta lan prebentibo bat egitea da. Bakardadean daudenak integratzen lagundu dezakete. Eta telefono deiotan zerbait adierazgarria, larria, identifikatzen badute, guk gizarte zerbitzuetara bideratu dezakegu auzia.

Zelakoak izaten dira boluntarioen eta erabiltzaileen arteko hartu-emanak?

Boluntario bakoitzak bere erabiltzailea dauka. Astero-astero telefono bidezko elkarrizketa bat izaten dute. Oso inportantea da telefono deia noiz eta zein orduan egin behar duten zehaztea boluntarioei, bakardade egoeran dauden pertsonak momentu hori itxaroten egoten direlako. Deia behar den moduan egiten ez bada, bakardadean dagoenari antsietate bat sortu dakioko. Momentu honetan 9 boluntario ditugu. Herrizain edo detekzioarako kide modura 25 daude.

Boluntarioek eta erabiltzaileek ez dute elkar ezagutzen.

Hartu-eman anonimoa daukate, bakardadean bizi denak baten batez egoteko dependentzia izan

dezake eta. Erabiltzaileek boluntarioa ezagutu gura izateko gogoia agertu dute inoiz, baina oraingoz ez dugu horretarako erabakirik hartu. Boluntarioak ere zaindu behar ditugu.

Zelakoak izaten dira telefono elkarrizketak?

Erabiltzaileei buruzko datu gutxi batzuk ematen dizkiegu boluntarioei. Haien urtebetetze eguna zein den, non jaio diren, zein afizio duten, zer kozinatzea gustatzen zaien, mendirako zaletasuna ote

Mentalitate indibidualista barik, komunitarioa sustatu behar dugu. Sare soziala, baina digitala barik, fisikoa

duten... Horrelako kontuak jakinarazten dizkiegu. Gero, hari horietatik tiraka egiten dituzte telefono deiak. Badugu adibide esanguratsu bat. Gogoan daukat erabiltzaileetariko batek baiezkogaz edo ezezkogaz baino ez ziela erantzuten galderei. Pertsona hori depresioak jota zegoen, ez zen etxetik irteten. Eta gaur egun bestelakoa da kontua. Guk boluntarioari jakinarazitako hiru-lau datuei eskerrak, erabiltzaile ho-

rrek eta boluntarioak mendiari buruzko elkarrizketa ugari izaten dute, herrian gertatzen diren gauzei buruzko kontu ugari kontatzen diote elkarri. Oso-oso bestelako jarrera bat dauka. Erabiltzailearen semeak berak komunikatu digu egundoko aldaketa igarri duela gurasoarengan. Kontatu dudan hau kasu anekdotikoa da, baina ondo islatzen du zerbitzuaren funtsa.

Bakardadea ez da adinduen zerbait bakarrik, adin tarte guztietan dago; gazteen artean ere geroago eta gehiago dago

Kontabilizatu duzue daturik? Zenbat dira gura bako bakardadean bizi diren elorriarrak?

Gai honi heltzeko beharrezko agerian geratu zen pandemian. Hori dela eta, Elorrioko Udalak beharrezko sozialen diagnostiko bat egiten du etxerik etxe, urtero. Datu horien arabera, Elorrioko 118 dira 80 urte baino gehiago izan eta bakarrik bizi direnak. Kasu batzuetan zaintza lanez arduratzen diren langileren batez bizi dira.

Zeintzuk dira haien ezaugarri eta profil nagusiak?

Ezaugarri nagusia da pertsona adinduak direla. Kasu batzuetan, familiako kideak herritik joan eta bakarrik geratu diren herritarrek daude. Badaude mugikortasun kontuengaitik kalera irteteko zailtasunak dituztenak. Dena dela, azpimarratu gura dut bakardadea ez dela adinduen kontu bat. Adin tarte guztietan ematen da. Emakume migratzaileak ere badira errealitate horren zati. Adibidez, 28 urteko emakume migratzaile batez esku hartzen dugu. Seme-ala-bak jatorri herrialdean ditu eta inklusioa lantzen dugu beragaz. Ekintzetan parte hartzen du, taldeetan. Bestalde, teknologia berriek, gailu elektronikoek, indibidualismoak,... horiek gura bako bakardadea sortzen diete askori. Gazteekin ere lan egin izan dut, eta gazteengan geroago eta bakardade kasu gehiago dagoela ikusten dut. Mundu birtualean egonda, ez daukate mundu fisikoa ematen duen gertutasun hori, gozotasun hori, momentuko feedback hori.

Herrizaintza proiektuak zelan lagundu dezake gai horretan?

Gaur egungo gizarte indibidualismorantz doa. Digitalizazioa bolo-bolo dabil. Baina proiektu honek komunitatea aktibatzea du helburu. Auzolanak ez du zertan

errepideak konpontzera edo jaietako herri bazkaria antolatzen mugatu. Zaintza ere auzolanean egin daiteke. Lehen, gurasoek gu non utzi ez zekitenean, auzokoa-renean uzten gintuzten. Alde horretatik, Elorrioko Udalak helburu hori dauka, komunitatea eta zaintza aktibatzea, gertutasun horregaz errazagoa delako dena. Alde horretatik, udala proiektu honen gainean dagoela ikusten dut.

Zelako ezaugarriak dituzte boluntarioek?

Osasun langileak izandakoak, enpresaburuak, irakasle izandakoak, jubilatuek, ditugu boluntarioen artean. Modu batera edo bestera, bakardadeagaz sensibilizaturiko herritarrak dira, herriko komunitateetan aktibitate handia dutenak. Egundoko inplikazioa dute. Ia guztiak emakumeak dira. Beti gertatzen den

Herrizaintza ia boluntario denak emakumeak dira. Hemen ere emakumea eta zaintza lotuta ageri dira. Hori aldatzea gura nuke

moduan, hemen ere emakumea eta zaintza lotuta ageri zaizkigu. Datozen urteetan hori aldatzea gura nuke.

Hain zuzen ere, mugimendu feministak zaintza erdigunean ipintzeko dinamikari ekin dio. Bat zatoz bide horregaz?

Bai, guztiz. Komunitatea aktibatzearen alde nago. Herritarren gaitik arduratuta ez dagoen herri batek atxikimendua galduko du bestela. Gertukoa zaindu behar dugu, azken finean horretarako gatz-eta bizitza honetara, elkar zaintzera. Baten batek gu zaintzen gaituen eran, guri ere ondokoa zaintzea dagokigulako. Mentalitate indibidualista barik, herritarrek elkarregaz konektatu eta mentalitate komunitarioa sustatu behar dugu. Sare soziala, baina digitala barik, fisikoa.

"Bakarrik dagoen batentzat egundokoa da telefono dei batek izan dezakeen eragina"



BOLUNTARIOTZA • EKAITZ HERRERA

Herrizaintza proiektuan bederatzi boluntario arduratzen dira gura bako bakardadean dauden bizilagunei astero-astero deitzeaz. Boluntarioak eta zerbitzuaren erabiltzaileak Elorriokoak diren arren, ez dute elkar ezagutzen. Horren arrazoia alde bien arteko dependentzia saihestea da.

ANBOTOk, anonimotasun hori gordeta, boluntario bat elkarriketatu du. Honela kontatu du bere esperientzia. "Orain hiru urte, pandemian, antzera bateko boluntario lanak egiten hasi nintzen. Nagusilan elkarteak Hilo de Plata izeneko zerbitzua dauka, gura bako bakardadean daudenei telefono bidez konpainia egiteko zerbitzua. Bertan hasi nintzen boluntario lez, eta Elorriko Herrizaintza martxan ipini zutenean zerbitzuan izena ematea erabaki nuen", azaldu du. Esperientzia "positiboa" izan da bo-

luntario elorriar honena. "Herriko bizilagun bati eguazteno deitzen diot. Elkarriketa bat izaten dugu telefonoz, konpainia egiten diot. Eta berak, zelanbait, laguna duen ahots bat, konpainia bat, topatzen du telefonoaren beste aldean. Pertsona horrentzat egundokoa da jakitea zuk egun eta ordu zehatz horretan deituko diozula. Aho-tsean bertan igartzen diozu deia itxaroten egon dela. Berriketan dagoela, zugaz berba egiteko gogotsu dagoela igartzen diozu. Bakarrik dagoen batentzat, errutina tristea daukan batentzat, izugarria da horrelako dei batek izan dezakeen eragina", gaineratu du.

Boluntario egiteko deia

"Lehenengo elkarriketak igarota, beste era bateko gai batzuk lantzen dituzu telefonoz. Zer kozinatzea gustatzen zaion, errezeta zehatz bat zelan prestatzen

duen, bere jaioterria zelakoa zen... Boluntarioak elkarriketarako gaiak bilatu behar ditu. Egia esan, oso esker oneko lana da, benetan aberasgarria", azaldu du boluntario anonimoak. Eta bere esperientzian oinarrituta, gainerako elorriarrak deitu ditu zerbitzuan izena eman eta boluntario egitera: "Boluntario lan honetarako eta beste lan boluntarioetarako. Bai, dudarik barik. Zerbitzuan izena ematera animatuko nituzke herritarrak. Hartzen duzun ardura ez da hainbesterako, eta trukean jasotzen duzun oso-oso aberasgarria eta esker onekoa da", amaitu du.

Herrizaintza proiektuagaz hartu-emanetan ipini gura duenak zein boluntario lez inskribatu gura duenak honako bide hauek ditu: 688 655 461 telefonoa eta herrizaintza@elorrio.eus helbide elektronikoa.

Hainbat datu

1 **118**

80 urte baino gehiago izan eta bakarrik bizi diren elorriarrak. Kasu batzuetan, zaintza lanez arduratzen den langileren batzuek bizi dira. Datua Elorrioko Udalak urtero egiten duen beharizan sozialen diagnostikoan dago jasota.

2 **9**

Herrizaintza proiektuan telefono deiak egiten parte hartzen duten boluntarioen kopurua. Boluntario bakoitzak astero deitzen dio bakardadean dagoen bati.

3 **80**

Adin horretatik gora, aukeratu bako bakardadea arrisku faktorea da. Munduko Osasun Erakundearen irizpideek halantxik jasotzen dute.

4 **688 655 461**

Herrizaintza proiektuko telefono zenbakia. Boluntario egin gura denak zein auzokideren bat bakardadean dagoela ikusten duenak telefono honetara deitu dezake.

DIBA
KOOPERATIBA

Durangaldeko Baserritarren Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

EKAINAK 16
18:00 - AITA SAN MIGUEL PLAZA
"La Banda Teatro Circo"
KIMERA
19:30 ASKONDO
Orain bi MUTE

XVII. Jurreta Kalez-Kale 2023

EKAINAK 17
18:00 ASKONDO
Two Much DOUBLE BILL

EKAINAK 18
13:30 DANTZARI Eriz Magoa
AUSKALO

19:30 - ASKONDO Maite Guevara QUE BUEN DIA

Bizkaia Euzko Leizateko Udala

“Elkar Laguntzen elkarteak praktika solidarioak gauzatzeko helburuz sortu dugu, bazterkeriari eta pobreziari aurre egiteko asmoagaz”

Oihane Garamendi Bengoa, Javier Solaguren Uriarte eta Kontxi Bilbao López Zornotzako Elkar Laguntzen elkarteak kideak dira. Besteak beste, informazioa eta arreta ematen diete pobrezia edo bazterkeria arriskuan dauden herritarrei



Oihane Garamendi Bengoa, Javier Solaguren Uriarte eta Kontxi Bilbao López.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Elkar Laguntzen elkarteak, iazko udazkenean egituratu bazen ere, aurtengo otsailean ekin dio lanari. Elkartearen helburuen artean bazterkeriari eta pobreziari aurre egitea dago. Tresna nagusi bat dute horretarako: informazio puntu bat. Arreta eta informazio zerbitzua ematen diete beharrezko duenari. Beste lan ildoetarikoa bat gizarte sentsibilizatzea da. Elkarleak 43 kide ditu.

Zerk bultzatuta sortu duzue Elkar Laguntzen elkarteak?

Javier Solaguren Uriarte: Elkartearen sorburua Zornotzako Ongi Etorri Errefuxiatuak plataforman dago. Plataforma 2016an sortu zen, eta ordutik honako denbora tartean, migratzaileengana hurbildu izan garenean, hainbat herritar ezagutu dugu Atzerriartasun Legeak eraginda, erroldatu ahal izateko zailtasunekin, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eskatu beharrezko eta etxebizitza alokatu ezin da. Hori dela eta, orain hiru urte beharrezkotzat jo genuen elkarleak bat sortzea praktika solidarioak gauzatu ahal izateko. Alde horretatik, informazio puntu bat eskaini gura genien egoera horretan zeuden herritarrei. Izan ere, zerbitzu sozialek eta Lanbidek izaten duten jarrera ez zaigu proaktiboa iruditzen.

Elkartean zein ekintza antolatu duzue orain arte?

Kontxi Bilbao López: Dinamiketarikoa batzuk Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformak hasi zituenak dira. Adibidez, Zornotzako jaietan marmitako lehiaketa erraldoia egiten da. Eta orain urte batzuk, herritar migratzaileek ekintza horretan parte hartzeko aukera izan behar zutela ikusi genuen. Harrezkero, 60 bat lagun batzen ditu gure marmitakoak. Bestalde, jatorri ezberdineko zornotzarrek egindako antzezlan bat sortu genuen iaz. Berbaldiak antolatu ditugu, zikloak.

Oihane Garamendi Bengoa: Iruditzen zait gakoia elkarlana dela. Neurri batean, Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformari eskerrak sortu da Elkar Laguntzen. Beraz, elkarlan hori koordinatu gura dugu eragile bien artean. Eta, zelan ez, herrian egon daitezkeen gainerako mugimenduekin ere bai. Elkarle modura ibilbide laburra dugu. Apirilean sentsibilizazio kanpaina bat egin genuen, herritarrei informazio puntu bat dagoela eta bertara modu anonimo eta konfidentzian joan daitezkeela jakinarazteko.

Zelan dago antolatuta informazio puntu hori?

O.G.B.: Zornotzako elkarleak bat garenaz gero, Zelaieta zentroan

gela bat izaten dugu erreserbatuta. Gela horretan hartzen ditugu beharrezkoak duten herritarrek. Bulego bat balitz lez, hitzordua eskatuta hartzen ditugu. Zapatuetan han egoten gara, 10:00etatik 12:00etara. Gugaz hartu-emanetan ipintzeko eta hitzordua eskatzeko, 627 129 067 telefonoa eta elkarlaguntzen@gmail.com helbide elektronikoa ditugu.

Zenbat herritar hartu duzue informazio puntuan?

O.G.B.: Informazio puntua martxan ipini genuenetik bederatzi herritar etorri dira. Hartu-eman presentziala izan dugu haiekin. Bakoitzagaz bi-hiru bider batu gara. Etorri diren gehienak emakumeak izan dira, eta ia guztiak prozesu migratorio batetik datozenak edo prozesu batean murgilduta daudenak dira. Horrez gainera, beharrezkoak duten beste 20 bat bizilagunegaz egin ditugu hartu-emanak. Bestalde, badira hemengoak izan eta laguntza eske etorri diren zornotzarrek ere.

Zeintzuk dira migratzaileek aipatzen dizkizueten arazorik komunenak? Zer diotsue?

J.S.U.: Kexu dira. Lanbiden eta zerbitzu sozialek gehiegizko burokrasia dagoela dioskue. Egundoko dokumentazio kopurua eskatzen diete, eta hainbat bi-

der ibili behar izaten dute atzera eta aurrera. Susmopean baleude lez sentitzen dira, eta gauzak erraztu beharrezkoak, trabak dituztela dioskue. Gero badago beste ñabardura bat. Orokorrean, jasotzen duten tratua desberdina da bakarrik badoaz edo baten batek lagunduta badoaz. Bakarrik badoaz, mespretxua jaso ohi dute.

O.G.B.: Antzematen dugun beste puntu bat zaugarritasuna da. Muga ekonomikoak ezartzen diren zaugarritasuna batetik, eta zaugarritasun emozionala bestetik. Institutuzio batera laguntza eske joan behar horrek ezartzen diren zama, hain zuzen ere. Kasu askotan, laguntza horiek ez dira heltzen, edo berandu heltzen dira. Batetik bestera ibili behar izaten dute, bulego batetik bestera, haien lanorduetan askotan, bizi proiektua garatu ezin da. Eta horrek itxaropena higatzea dakarkie.

Nondik hasi gaituzte gauzak aldatzen?

O.G.B.: Iruditzen zait eragile guztien arteko koordinazioa bultzatu behar dugula. Hau da, zerbitzu profesionalen eta elkarlearen, mugimenduen arteko koordinazioa. Alde horretatik, alde guztien arteko engranaje lana egin dezake Elkar Laguntzenek. Elkarleak eta instituzioek modu bateratuan lan egin beharko lukete.

Bainu denboraldia hasita, Ganeko igerilekuak zabalik daude jada

ZORNOTZA • E.H.

Ganeko igerilekuak udatiarrak hartzeko prest daude egunetik. Instalazioak honako ordutegi honez zabaldu dituzte: 11:00etatik 21:00etara astelehenerdik zapatara, eta 11:00etatik 20:00etara dokema eta jai egunetan. Zornotzan erroldaturikoentzako prezioak honako hauek dira: helduen banakako sarrera, 4 euro; adin txikikoena, 2 euro; 10 txartelez osaturiko bonua 30,30 euroan (helduak) eta 15,2 euroan (adin txikikoak) ipini dituzte salgai. Udalekuek erabiltzaileek eta elkarleak kideek 2 euro (helduak) edo 1,1 euro (umeak) ordaindu beharko dute.

Zornotzan erroldaturiko familien bonua 45,5 eurokoa izango da eta Zornotzan erroldaturiko banakako bonua 30,3 eurokoa. Azkenik, Gazte Karteta duten herritarren kasua dago. Azken hauek 24,4 euro ordaindu beharko dute bonua gaitik.

Gizarte ekintzarako eta desgaitasuna dutenentzako laguntzak, prest

ZORNOTZA • E.H.

Zornotzako Udalak diru poltsa bi ipini ditu martxan. Bata gizarte ekintzaitzari laguntzeko, eta bestea desgaitasuna duten herritarrei laguntzeko. Lehenengoaren kasuan, 30.000 euro prestatu dituzte autonomia pertsonala sustatzen duten erakundeei eta bazterkeria eta larrialdi egoerak prebenitu zein artatzen dituzten elkarleak laguntzeko. Bigarrenaren kasuan, 28.000 euro prestatu dituzte desgaitasunen bat duten adin txikikoei emandako tratamenduak diruz laguntzeko. 6tik 18 urtera bitarteko adin txikikoei lagunduko diete laguntza horregaz.

Baterako zein besterako laguntzak Herritarren Arretarako Zentroan edo udalaren web orrian eskatu beharko dira. Gizarte ekintzetarako laguntzak eskatzeko epea ekainaren 30ean amaituko da. Eta desgaitasuna duten umeei laguntzeko, urriaren 31n.

Ekin enpresak 6,5 milioi euro inbertituko ditu ekoizpena hobetu eta produktu berriak sortzeko

Zornotzako enpresak 60 urteko ibilbidea bete du egunotan. Automozioa eta aeronautika indartu gura ditu

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Ekin enpresak inbertsio plan bat hasi du ekoizpena hobetu eta etorkizunari begira produktu berriak sortzeko. Ikerketaren, Garapenaren eta Berrikuntzaren (I+G+B) alde egin eta teknologia berriak sartuko ditu, bai materialetan bai ekoizpen prozesuan. Brotxatzeko eta ijazteko

makinen fabrikazioan daukan posizioa finkatzeaz gainera, Ekinek energiaren, automozioaren eta aeronautikaren arloetan hedatu gura du bere eragina.

Hainbat aurreikuspen

Inbertsio horiei eskerrak, arlo aeronautikoko ekoizpena bikoiztu gura dute, 1,7 milioi eurotik 3,8

milioi eurotara igarota. Bestalde, automozioan eta elektromugikortasunean %25 igo gura dute ekoizpena. Iaz ekoizturiko 12 milioi euroetatik 15 milioitara igaro gura dute 2025ean. Gaur egun, automobilgintza-jarduerak Ekinen fakturazioaren %75 hartzen du; aeronautika eta energia sektoreek, %10; eta elektromugikortasunarenak %6. Kooperatibaren aurtengo salmenta-aurreikuspenak 23 milioi euro ingurukoak dira.

60 urteko ibilbidea

Ekin enpresak 60 urteko ibilbidea bete du egunotan. Zornotzako zortzi herritarrek sortu zuten, 1963an. Gaur egun lau ekoizpen lantegi dituzte: Zornotzan, Lemoan, Indian eta Queretaron (Mexiko). Gaur egun, 280 langile daude lau zentroetan. Zornotzan eta Lemoan, 180.



Ekin enpresaren lantegi nagusia Zornotzako Boroa auzoan dago.

Zornotza Europa Ekialdeko kulturen topaleku izango da zapatuan, Tilofest jaiagaz

17:00etan hasita, askotariko dantzak, musika saioak eta mokaduak izango dira Zubiondo plazan



Juravca elkarteko kideak.

ZORNOTZA • E.H.

Zornotzako Juravca elkarteak Tilofest jaialdiaren edizio berri bat antolatu du zapatarako. 17:00etan, Europa Ekialdeko hainbat kulturak bat egingo dute Zubiondo plazan. Besteak beste, Moldaviako, Errumaniako eta Georgiako kulturen ekitaldiak egingo dituzte, Euskal Herriko eta Zornotzan errotruriko errusiar lipoveniarren komunitateagaz batera. Bertan parte hartuko duten elkarteetarikoz batzuk Logroñoko Nelu Si Vasile taldea, Bilboko Vasile Guta Moldoveanu, Casa de Georgia elkarte, Rodina elkarte eta Zornotzako Triki Piu Pand taldea izango dira. Jaialdian musika eta dantzak egongo dira, eta kultura bakoitzeko gastronomia tradizionala dastatzeko aukera ere bai.

Errusiar lipoveniarrek eta errumaniarrek osaturiko komunitatea aspalditik dago errotuta Zornotzan. Euskal Herriko hirigune handiak aparte utzita, Zornotza da Errumaniako herritarrik gehien batzen duen udalerrria.


anboto
kide

Anbotokideen txokoa

EKAINEKO ZOZKETAK



Alcamporen produktu lotea.



Xiberu tabernan bi pertsonentzako gosaria. Zornotza.

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

IRABAZLEAK

Mendexa Abentura Park:

Libe Etxeita Agirre eta Itxaso Egidazu Elorza

Jatordua Uxarten:

Jurgi Barreña Lejarreta

Gosaria Gauargin:

Ibai González de Audicana Iturriaga

Okm:

batzen gaituen distantzia

Egin zaitetz Anbotokide eta parte hartu gure zozketetan!



Paella lehiaketa, apar festa eta puzgarriak Murueta Torreko jaietan

Zapatuan eta domekan, jaiak ospatuko dituzte Durangoko Murueta Torre auzoan



Umeentzako ekitaldi bat Murueta Torreko jaietan.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Murueta Torreko bizilagunek auzoko jaiak ospatuko dituzte asteburu honetan. Zapatu goizean, 11:30ean, ekingo diote egitarauri, umeentzako puzgarriak, zurezko jolasak eta aurpegia margotzeko tailerrak martxan ipinita. Auzotarren arteko ekitaldirik jendetsuena eguerdian helduko

da: paella txapelketa. 12:00etan hasiko da eta 14:00etan entregatu beharko dituzte paellok, epaimahaiaren aurrean. Arratsalde partean, herri kirolak, Akustikovers taldearen kontzertua eta Gabi musika jartzailea izango dute.

Domekan, gehiago

Domeka tortilla txapelketa joko-

tzeko, puzgarrien gainean salto egiteko eta aparrez bustitzeko eguna izango da. Arratsalde partean, Ernesto Miarik salsa ikastaroa emango du, eta orduak aurrera egin ahala txokolatada bat eginda amaituko dituzte jaiak. Sariak ere zozkatuko dituzte. Ekitaldi guztien ordutegia anboto.org atarian dago ikusgai.



Sorginola da Durangon egondako azken gaztetxea. Iazko azaroan eraikina bota zuten.

Durangok gaztetxe bat behar duela aldarrikatuko dute barikuan

11:00etan hasita, Durangoko Gazte Asanbladak egun osoko jardunaldia egingo du gaur, barikua, Tabiran

DURANGO • E.H.

Durangoko Gazte Asanbladako kideek kalera irtengo dute gaur, barikua, herrian gaztetxe bat "beharrezkoa" dela adierazteko. Euren esanetan, herrian ez dago "era autogestionatuan antolatuzeko espaziorik", ezta "gazteak subjektu politiko modura hezi, sortu eta elkartzeko" lekurik. Hori dela eta, "gaztetxe bila"

hasiko direla iragarri eta egitarau bat antolatu dute. 11:00etan Mari pelikula proiektatuko dute Ibaizabal ikastolan, eta, horren ondoren, gaztetxearen beharrezkoa jorratuko dute mahai-inguru batean. Tabirako parkean bazkaldu (13:00) eta jolasak egin eta gero (16:00), kontzertuak eta karropoteoa egingo dituzte.



Ahalduntze bertso eskola feministako jardunaldi bat.

Ahalduntze bertso eskola feministak jaia egingo du zapatuan, Durangon eta Iurretan

Ikasturtean egindako lana erakustez gainera, jardunaldiak bertso munduko emakumeak batzeko balioko du

azken emanaldia egingo dute Plateruenean.

DURANGALDEA • ARITZ MALDONADO

Durangok eta Iurretak Ahalduntze Bertso Eskola Feministaren jaia hartuko dute zapatu honetan. Parte hartzaileen lana plazaratzeaz gainera, proiektua ezagutaraztea eta bertso munduko emakumeak batzea izango da Bertso Egunaren helburua. Honako ekintza hauek egingo dituzte zapatuan zehar: 12:00etan bertso-poteoa Duran-

Ahalduntze bertso eskolako kideak Durangon eta Amasa-Villabonan elkartu dira hilero

gon.14:30ean bertso munduko emakumeen bazkaria Iurretako Abadetxean.17:30ean bertso saio irekia Iurretako plazan. Eta 20:00etan Erre antzezlanaren

Hilabetero ahalduntzen

Ahalduntze bertso eskolako kideak Durangon eta Amasa-Villabonan (Gipuzkoa) elkartu dira hilero. Guztira, 23 bertsolari eta hiru gai-jartzaile aritu dira. Ahalduntze Bertso Eskola Feministak datorren urtean ere izango du jarraipena. Aurten goa zortzigarren ikasturtea izan da. Ohikoa duten moduan, esperimentazioan eta aniztasunean oinarritu dituzte eskolak.

anboto

**Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa**
Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

2023ko ekainaren 16a
21. urtea - 940. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Udaletako kargu hartzeekin aro politiko berri bat hasiko dute Durangaldean

Eskualdeko zinegotzi eta alkateek udalbatzak egingo dituzte bihar, ekainak 17, karguak hartzeko

DURANGALDEA • JONE GUENETXEA

Maiatzaren 28ko hauteskundeetako emaitzek Durangaldeko udalbatzak eragin zehatza jakingo da bihar. Herri bakoitzeko udalbatzarretan, zinegotzi eta alkate berriek karguak hartuko dituzte. Herri batzuetako alkateen aginte makila noren esku geratuko den argi dago. Beste kasu batzuetan, oster, azken asteetan alderdiek euren artean egindako negoziazioen arabera izango da emaitza. Horrela, hurrengo lau urteetarako panorama politikoa erabakita geratuko da.

Durangoren kasuak zeresan handia eman du azken asteetan. Izan ere, EH Bildu historian lehenengoz alderdirik bozkatuena izan den arren, aukera asko dago EAJ hartzeko alkatetzara. Durangoko EAJk "PSE-EEgaz bakarrik" gobernatuko duela iragarri zuen atzo, prentsa oharrean. Mireia Elkororibe alkategai jeltzaleak azpimarratu du "Durangori egonkortasuna emateko eta Durangok etorkizun ilusionagarriantza aurrera egiteko proiektuak" gauzatu gura dituela. Baina jeltzaleek PPre babesa ere beharko dute udaleko aginte makila hartzeko. PPKo Carlos Garciak dagoeneko aurreratu du bere borondatea "EH Bildu gobernutik kentzea" dela.

Bestalde, Ima Garrastatxuk atzo iragarri zuen "Durangorako akordio zabal eta aurrerakoi bat" proposatu diela PSE-EEri eta Herriaren Eskubideari. Akordio horrek trenbide zaharreko proiektu berria erdigunean ipiniko lukeela gaineratu du koalizio subiranistak. PERIaren bost dorreen proiektu zaharrera bueltatu gura izatea egotzi dio EH Bilduk EAJri.

Abadiñoren kasuan ere Mikel Urrutia buru duen EH Bilduren zerrenda da bozkatuena, baina Mikel Garazaibal jeltzaleak PSE-EE eta Abadiñoko Independente Berriak alderdien babesa lortzen badu alkate karguan jarraitu ahal izango luke legegintza bat gehiago.

Elorrioren kasuan ere Mikel Urrutia buru duen EH Bilduren zerrenda da bozkatuena, baina Mikel Garazaibal jeltzaleak PSE-EE eta Abadiñoko Independente Berriak alderdien babesa lortzen badu alkate karguan jarraitu ahal izango luke legegintza bat gehiago.

kera asko izango luke gobernuan jarraitzeko. Kasu horretan, Idoia Buruagak Julene Lazkanori pasatuko lioke aginte makila.

Zornotzaren kasuan, Ainhoa Salterain buru duen EAJk PSE-EEren babesa beharko du gobernatzeko. Hori horrela balitz, legegintzaldi biren ostean Andoni Agirrebeitiak Santerain alderdikideari emango lioke aginte makila.

Berrizen, EAJren eta EH Bilduren arteko lehia oso estua izan zen maiatzeko emaitzei erreparatuta. Jeltzaleek hiru botoren aldea atara zioten koalizio subiranistari. Beraz, Orlan Isoiriden alderdiak (EAJ) PSE-EEren babesa beharko du biharko kargu hartzean.

Atxondoren eta Zaldibarren kasuetan, indar aldaketa aurreikusen da udal gobernuan. Atxondon Xabier Azkaratek (EAJ) Eneritz Agirreri (EH Bildu) emango dio aginte makila, eta Zaldibarren Jose Luis Maiztegik (EAJ) Eneritz Azpitarteri.

Bestalde, gainerako herrietan gehiengoagaz irabazi duten alderdien kasuan ez da sorpresarik itxaroten. Herri askotan, aurreko legegintzaldiko alkateek lau urtez karguan jarraitzea aurreikusen da: Mallabian Igor Agirrek (EAJ), Mañarian Ainara Otxotorenak (EH Bildu), Otxandion Egoitz Garmendiak (EH Bildu), Iurretan Iñaki Totorikaguenak (EAJ) eta Garain Erramun Osak (EAJ). Izurtzan, Lorea Muñozek Oihane Irastorza (EH Bildu) alderdikideari emango dio makila.

DURANGALDEKO PLENOAK

EKAINAK 17

- Durango: 09:00
- Berriz: 09:00
- Iurreta: 10:00
- Atxondo: 11:00
- Izurtza: 11:00
- Otxandio: 11:00
- Elorrio: 11:00
- Abadiño: 12:00
- Zornotza: 12:00
- Mañaria: 12:00
- Mallabia: 12:00
- Garai: 12:00
- Zaldibar: 12:00



2019ko kargu hartzea Durangon, ezkerrean Mireia Elkororibe eta eskuman Ima Garrastatxu.

PLUSDENTAL

Julio Bernardo Gonzalez doktorea

PSE: 199/17

ODONTOLOGIA DIGITALA
HORTZ-INPLANTEAK EGUNEAN BERTAN, PUNTURIK GABE
ORDENAGAILUZ GIDATUTAKO KIRURGIA
AIRFLOW PERIODONTZIA
SEDAZIO BIDEZKO TRATAMENDUAK

24 ORDUTAN BERMATUTAKO ARRETA

DURANGO
ANDRA MARI KALEA 4
944 008 235 - 688 766 973

GALDAKAO
LAPURDI KALEA 18
944 575 233 - 629 972 088

ESKATU ZURE HITZORDUA BAITA WHATSAPPEZ ERE

“Zapatukoa egun polita izango da, Mamuon Jaixak ilusio handia piztu du-eta herrian”

Otsailean 35 urte bete ziren Elorrion Gaztetxea okupatu zutenetik. Zapatuan egitarau zabal bategaz ospatuko dute



Josu González eta Maialen Carlos Elorrioko Gaztetxeako kideak.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Hasteko, zer da zapatuko antolatzen duzuen Mamuon Jaixa?

Maialen Carlos: Gaztetxearen 35. urteurrenaren modu berezi batean ospatzea behar zuela pentsatu genuen. Orduan, nahiz eta urtero lez urteurrena otsailean ere ospatu,

Mamuon Jaixa antolatzea erabaki genuen. Jai honegatik beste dimentsio bat eman diogu urteurrenari, eta helburu batzuk ere ipini dizkiogu. Helburuetariko bat herrian Gaztetxeari ikusgarritasuna ematea da, eta, horregaitik, jai herri guztira zabalduko dugu, ahalik

eta jenderik gehienarengana heltzeko. Gu Gaztetxean jendearen zain egon beharrean, herrira goaz, herritarrengana.

Josu González: Mamuon Jaixa apustu bat da, iaztik datorrena. Pentsatu genuen apustu polita izan zitekeela egun berezi bat antolatzea, bai herriari zerbait ematearren, baita jendea Gaztetxera erakartzeko ere.

Eta zelan doa antolaketa?

J.G.: Guretzat zerbait berria da eta askotan zalantzak izan ditugu ea gai izango garen eguna antolatzeko. Oraingoz oso ondo doa dena eta dagoeneko azken txanpan gaude.

M.C.: Aurreko urte amaieratik batzartzen egon gara, astero batzen, horrelako egitarau bat antolatzeak lan handia eskatzen du eta. Gainera, ez gara honetara bakarrik mugatu, urtean zehar ere egitarau zabalak izan dugu.

Egun honen antolaketak balio izan dizue zuen taldea indartzeko?

M.C.: Dударik barik. Eta baita ilusio berezi bat pizteko ere. Zapatukoa egun polita izango da, Mamuon Jaixak ilusio handia piztu du-eta herrian.

Denentzat egun berezia izatea gura duzuela esan duzue sarritan.

J.G.: Horixe izan da helburuetariko bat, herritar guztiengana heltzea, eta baita herriko eragileengana

heltzea ere. Eta, jakina, eurek egun honetan parte hartzea. Azken batean, 35 urtean jente asko pasatu da Gaztetxetik, eta euren gaitik izan ez balitz ez ginatke hemen egongo. Horrez gainera, beste herri batzuetako Gaztetxeak ere gonbidatu ditugu. Guretzat oso egun berezia da eta jendeari hori helarazi gura izan diogu.

M.C.: Egitaraua adin tarte guztiarentzat pentsatuta dago. Egunari azoka bategaz emango diogu hasiera. 11:00etan umeentzako ekintzak egongo dira, Intxorta Asti taldeak antolatuta, eta 12:00etan pilota eta pala partiduak. Eguerdian elizpean batuko gara bazkaltzeko, eta arratsaldean eskaintza musikalak hasiko da: txaranga, eta kontzertuak Errebonbilo kalean eta Ganondon. Gaztetxean emango diogu amaiera egunari.

Beste ezer gehitu gura duzue?

J.G.: Gaztetxeko egitaraua ez dela hemen amaitzen. Aste honetan Mamuon Jaixa daukagu, baina hurrengo asterako ere baditugu ekintzak antolatuta. Uztailetik aurrera, Uda Gaztetxeroagaz hasiko gara, kale futbito txapelketa ere egingo dugu, eta abuztuan afariak, besteak beste. Horrez gainera, jai ere aldaketa batzuk egitea pentsatzen gabilta. Ez gaude geldirik, eta ez gara egongo.

Elorriarrek aurrekontu parte hartzaileetarako proposamenak egiteko aukera dute

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak martxan ipini du 2024ko aurrekontu parte hartzaileen prozesua. Iazko moduan, prozesuak fase bi izango ditu aurten ere. Lehenengoa proposamenak biltzekoa da eta martxan da dagoeneko. Herriarrek hilaren 25era arte dute aukera euren proposamenak egiteko.

Udalak hainbat bide eskaintzen du parte hartzeko. Alde batetik, udalean eta Iturri Kultur Etxean dauden postontzietan utzi ahal izango dira proposamenak, eta, bestetik, www.elorrio.eus webgunearen bitartez inprimakia bete ahal izango da. Bestalde, ekainaren 14an pertsona bat herriko hainbat lekutatik igaroko da zerbitzuaren berri ematen. Horrez gainera, prozesuaren lehen eskuko infomazioa eskuratu gura dutentzat, ekainaren 21ean Aldatsekuan txokolatada bat eginez emango dutela horren berri jakinarazi dute udaletik.

Bigarren fasea bozketa fasea izango da. Lehenengo fasean jasotzen diren proposamenak udal zerbitzu teknikoek aztertuko dituzte eta, ondoren, bozkatzeko epea zabalduko da.

87.000 euroko laguntza jaso dute eskolako patioa eraldatzeko Atxondon

Proiektuak 372.300 euroko aurrekontua du. Lehenengo faserako, 118.639 euro ipiniko dituzte, eta horretatik 87.000 euro Jaurlaritzaren laguntzagaz ordainduko dituzte

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko Udalak Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso du eskolako patioan lanak egiteko. Jaurlaritzak 87.000 euroko laguntza eman dio udalari proiektuaren lehenengo faseari aurre egiteko. Lehenengo faseak 118.639 euroko aurrekontua du.

Lehenengo fase honetan, eskolako patioa estaltzea eta haurrentzako jolas eta antzezpenetarako agertoki bat eraikitzea aurreikusten dute. Estalkiak 180 metro karratuko azalera babestuko du eta ikastetxeari beste espazio bat emango dio egun euritsu eta eguzkitsuenetarako.

Bigarren fase batean, pasabide bat eta jolasgune batzuk eraikitzea aurreikusten dute, besteak beste.



Atxondoko eskolako patioa.

Pasabide alternatiboa Atxondon, Bide Berdearen paralelo

AHTaren lanengaitik bide berdeko tarte bat itxita dago. Tarte berria uda sasoiaren baino ez da egongo zabalik

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko Udalak baieztatu du "udako eta oporraldiko zati handi batean" berriro zabalduko duela azken hileotan itxita egon den Bide Berdeko tarte. Hain zuzen ere, ordezkari pasabide bat egokituko dute, ekainaren 17tik abuztuaren 28ra, egungo trazaduragaz paraleloan joango dena.

"Tarte moztu zenetik, hainbat bilera egin dugu egoera honi irtenbidea emateko. Plan-teatu genuen aukeretariko bat semaforo alternatibo bat ipintzea izan zen, ibilgailuak errei bakarretik igarotzeko Martza inguruan, eta beste erreia oinezkoentzat uzteko, baina ez

ziguten neurria onartu", azaldu du Xabier Azkarate jarduneko alkateak.

Hasieran, Bide Berdea ekainaren 30era arte egon behar izango da, baina ADIFek udalari jakinarazi dio "zailtasun geoteknikoengaitik indusketa-fasean" daudela, eta, beraz, tarte hori zabaltzea atzeratu egingo dela. Hori horrela, egungo Bide Berdearen paraleloan bide alternatibo bat zabalduko dute, datozen hiletan erabili ahal izango dena.

Bide hori abuztuaren 28ra arte egongo da erabilgarri. Orduetik aurrera, berriro moztuko dute, gutxienez urriaren 11ra arte.



lazko irudia.

Berriztu sortzaileen azokaren edizio berri bat egingo dute zapatuan

Berrizko sortzaileen lanak ezagutarazteko azoka abenduan egin zen lehenengoz

BERRIZ • A. M.

Zapatu goizean Berriztu sortzaileen azokaren edizio berri bat egingo dute Berrizen. Berriztu izenagaz, bigarren eskuko produktuekin azoka egiten dute Berrizen, baina iaz, herriko sortzaileen lanak ezagutzera ematen laguntzeko asmoagaz, sortzaileen azoka ere antolatu

zuten, lehenengoz. "Azoka honegaz, Berrizko sortzaileei euren lanak eta proposamenak herri-tarren artean ezagutarazteko aukera eman gura diegu, haien ogibidea izan zein ez", azaldu dute antolatzaileek. Zapatu goizean zehar, Berrizjauregiko lorategi botanikoan (udaletxe parean) sortzaileen lanak era-

kutsiko dituen mahaiak egongo dira. Estreinako edizioan baino mahai gutxiago egongo diren arren, giro onean egingo dute herriko sortzaileen lana ezagutzera emateko ekimena. "Agian ez dugu datagaz asmatu, baina pozik gaude hala ere, hainbat parte hartzaile egongo da eta", azaldu dute.

Eskolako jolastoki berria eraikitzen dabilta

Zaldibarko Udalak Hezkuntza Sailaren 87.120 euro jasoko ditu

ZALDIBAR • A. M

Hasi dira Zaldibarko eskolako jolastokia berritzen. Proiektuak 96.800 euroko aurrekontua du eta horien ia %90 Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak ordainduko du, hau da, 87.120 euro; diru laguntza jasotzeko, lanak aurtengo abenduaren 31 baino lehenago amaitu beharko dira. Proiektu honetan, Txatxilipurdi elkarteak eta Zaldibarko Udalak elkarregaz lan egin dute, 'Amesten dugun jolastokia eraikitzen' prozesuagaz.

Parte hartze prozesuak zuzenean eragin du eskolako patioaren diseinuan; naturagaz hartu-eman izatea, eta ikuspuntu inklusiboa eta hezitzailea izatea lehenetsi da. Honela, belaunaldien arteko mahai jokoak eta adierazpen guinea ere egongo dira, frontoiaren alboko paretan arbela ipiniko dute, eta berdegune berria sozializatzeko lekua izango da. Bizikletaren eta patinetearen erabilera sustatzeko, aparkaleku gehiago edukiko dituzte.



Urtea amaitu aurretik amaitu beharko dituzte lanak.

1.900 kilo hondakin kendu dituzte Zumelegi eta Zalduerreka erreketatik

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abadiñoako Udalak, URA Ura- ren Euskal Agentziagaz sinatuta duen lankidetzaren barruan, udalerritik igarotzen diren Zumelegi eta Zalduerreka erreken hiru tarte garbitu zituen joan zen maiatzean. Guztira, 1.900 kilo hondakin atera zituzten erreketatik. Plastikoa eta egurra batez ere.

Udaletik azaldu dutenez, ibilguak mantentzeko eta berreskuratzeko egiten diren lanen barrukoak dira garbiketako lan hauek.



Erreka garbiketako argazkia.

Bigarren eskuko merkatua, DJ Kuku eta erakusketa Matienan

Isiotun Stonewalleko borrokaren erakusketa egingo dute, eta Taberna Zarran bigarren eskuko azoka

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Uda usaina nabaria da azkenaldian, eta horren adibide da gaur iluntzerako Traña-Matienan antolatu duten eskaintza kulturala. Alde batetik, LGTBI Kolektiboko kideek, Isiotu Kultur Elkartek, Izpilikuak Talde Feministak eta De Norte a Sur taldeak Stonewalleko borrokaren inguruko erakusketa eta pelikula emanki-

zuna antolatu dute elkarregaz. Gaur izango da, 19:00etan, Isiotu Kultur Elkartean.

Beste alde batetik, Traña-Matienako Taberna Zarra tabernan bigarren eskuko azoka antolatu dute. Azoka hau ere gaur arratsaldean izango da, 17:30etik 22:00etara, eta DJ Kuku egongo da bertan, musika ipintzen eta azoka giroten.

Atxondoko Udal Igerilekua




2023 DENBORALDIA

Ekainaren 24tik
irailaren 4ra
(biak barne).

Ordutegia:
11:00-20:00

SARRERA

- 4 urtera arteko umeak **debalde**
- 5-17 urte bitartekoak **3,50€**
- 18tik gorakoak **4,50€**



“Kartelean jaietako elementuak modu erraz eta freskoan islatzen ahalegindu naiz”

Italiarra jatorriz, Izurtzan bizitzen urte bi daramatzen Benedetta Lorusso irabazi du bertako jaietako kartel lehiaketa



Benedetta Lorusso

Kartel egilea

BARI (ITALIA) | 1981

IZURTZA • JOSEBA DERTEANO

Jaietako ohiko elementuak Izurtza-koak bertakoak diren beste batzuekin uztartzu diseinatu du kartela. Arte Ederrak ikasketak ditu eta artista ikuspegi hori ere baliagarria izan zaio kartelari forma ematerako orduan.

Lehenengoz aurkeztu zara Izurtzako kartel lehiaketara?

Ez, iaz ere aurkeztu nintzen, baina azken orduan izan nuen lehiaketaren berri. Denbora falta izan zitzaidan kartela gura nuen moduan lantzeko. Aurten denbora gehiagogaz egin dut.

Zelan definituko zenuke kartela?

Jaietako giro alai islatu gura nuen. Lehenengo begiratuan jaiekin lotzen ditugun elementuak tradizionalagoak diren beste batzuekin uztartu ditut. Irudi batzuek lotura zuzena dute Izurtzagaz: Etxaburu dorrea, basurdea... Koloreen konbinazioa gehituta, jaietako elementu horiek guztiak modu erraz eta freskoan islatzen ahalegindu naiz.

Baduzu diseinuari edo marrazketari buruzko ikasketarik?

Lan grafikoetan espezifikoki ez, baina Arte Ederrak ikasi nuen eta jakintza hori baliagarria izan zait. Gero, ohituta nago kartelak egitera. Kosmetika naturala egiten dut eta produktuentzako etiketak eta antzerakoak neuk egiten ditut.

Kosmetika naturala lantzen duzu?

Bai, eta azoketan saltzen dut. Internet bidez ere saltzen dut. *Etsy.com* plataformaren barruan nago, 'AromatikaShop' izenagaz.

Aurkeztu zara inoiz beste herri batzuetako kartel lehiaketaren batean?

Ez, baina hiru urte daramatzen Bizkaian bizitzen, eurretan bi Izurtzan, eta inguruotan kartel lehiaketa nahikotxo egiten dela konturatu naiz. Beharbada besteren batera ere aurkeztuko naiz datorren urtean.

Iaz Gertufest antolatzen lagundu nuen eta oso pozik geratu ginen. Aurten oraindino ilusio handiagoz antolatuko dugu

Parte hartzen duzu Izurtzako jaietan?

Bai. Iaz Gertufest jaia egin zen lehenengoz, eta hura antolatzen lagundu nuen. Oso pozik geratu ginen. Jende asko etorri zen eta eurretan asko umeak ziren. Aurten oraindino indar eta ilusio handiagoz antolatuko dugu.

Italiarra zara, Italia hegoaldekoa. Italiako hegoaldea eta Euskal Herria desberdinak dira?

Oso desberdinak dira. Inguru hau oso menditsua da, eta hura ez. Hemendik mendiak eramango nituzke hara.

Eta zer ekarriko zenuke handik hona?

Okindegietako produktuak: focaccia, pizzak eta antzerakoak. Hemengoak ez dira berdinak (barrez).

Anfibioen ugalketarako hiru urmael berri egin dituzte Otxandion, eta dagoeneko era horretako hamalau daude

2017tik hona, anfibio espezie askok erabili dituzte putzuak; tartean, babestuta dauden igel eta uhandre espezieek



Urmael berri biren irudia. AMBIENTALIA 21.

OTXANDIO • J.D.

Otxandion anfibioen ugalketa errazteko garatzen dabilen proiektua hazten ari da apurka-apurka. Orainsu, hiru urmael berri egin dituzte: Inola inguruan bi eta Presazelai inguruan beste bat. Azken hauekin, guztira hamalau dira Otxandion anfibioentzat egin dituzten putzuak 2017tik hona: eurretan zazpi iragazgaitzak dira —plastikozko geruza bat dute azpian— eta beste horrenbeste naturalak dira. Orain egin dituzten berriak iragazgaitzak dira.

Espezie berrien babesleku

2017tik hona, gutxienez zazpi anfibio-espezie daudela egiaztatatu ahal izan da: igel arrunta, baso igel gorria, igel jauzkaria,

apo arrunta, txantxikoa, uhandre palmata, uhandre marmolaria eta uhandre alpetarra. Espezie horiek guztiak Bernako hitzarmenaren bitartez babestuta daude. Gainera, anfibio-espezieetariko bi CVEaren kalteberen kategorian daude: uhandre alpinoa eta igel arina. Ekimeneko arduradunen esanetan, espezie horien presentzia "azkarrak" erakusten du putzu artifizialak "oraingoz beharrezkoak" direla, eta "oso positiboak" izaten ari direla ugaltze-habitata berreskuratzeko.

Jarduera hauek Otxandioko Udalari, Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailari eta EBko EGEF funtsek emandako diru laguntzei eskerrak egin dira.

Aitor Elordi buruz Mallabian bueltatuko da kantxetara, gaur

MALLABIA • J.D.

Aste biko deskantsuaren ostean, buruz buruko txapelduna kantxetara bueltatuko da gaur. Bere sorterrian izango da, Mallabian, Bizkaia Torneoaren barruan. Binakako partidua jokatuko du, Zabaletagaz batera, Ezkurdiaren eta Rezustaren kontra. 20:00etan hasiko den jaialdi berean beste partidu bi egongo dira: lau eta erdian, Etxeberria Darioren kontra; eta, buruz buru, Zabala Egiguren IV.aren kontra.

Asteon, Aspegaz lotzen zuen kontratua ia 2025era arte luzatu du Aitor Elordik. "Oso pozik nago. Orain niri dagokit Aspek emango dizkidan aukera berrirei etekina ateratzea", adierazi du.



Enol lakuaren ertz batean dagoen oroigarrian egin zuten omenaldia, domekan.

Covadongako lakuetan hil zirenak gogoratu dituzte

Orain 36 urte, Elorriko hiru herritar eta Garaiko beste bat hil ziren Europako Mendietan, erreskate lanetan

GARAI / ELORRIO • EKAITZ HERRERA
1987ko ekainaren 12a zen. Egun hartan zazpi lagun hil ziren Covadongako lakuetan (Asturias), han inguruan galduriko ume bat topatzeko lanetan zebiltzala. Ezbehar hartan hildako zazpi kideetatik lau Durangaldekoak ziren: hiru elorriar eta garaitar bat. Aur-

ten ere, Asturiasko Txakurren Erreskate Unitateko kideek istripu hartan hil zirenak gogoratu dituzte. Domekan ekitaldia egin zuten Enol lakuaren ertz batean dagoen oroigarriaren aurrean. Lore eskaintza egin zuten eta ezbeharrean hildakoen familiartekoek hitza hartu zuten.

Mañariko 40 lagunek parte hartu dute auzolanean

Aldegoiena eta Aldebaraieta auzoetako bide bazterrak garbitu eta txukundu dituzte herritarren artean

MAÑARIA • J.D.

Mañarian auzolanak antolatzen dituzte aldiro, auzo bideak garbitzeko eta bestelako konponketak egiteko. Azkenengo ekitaldi biak ekain hasieran egin dituzte, asteburu bitan banatuta, eta, guztira, 40 bat mañariarrek

parte hartu dute. Jardunaldi bietan Aldegoiena eta Aldebaraieta auzoetan ibili dira errepide bazterrak txukuntzen. Harrera ona duenez, aurrerantzean ere auzolanerako deialdi gehiago egiteko asmoa dutela azaldu dute udal arduradunek.



Mañarian egindako auzolanekeo irudia.

Futbol torneo solidarioa egingo dute lurretan, ekainaren 24an

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Futbol torneo solidarioa egingo dute ekainaren 24an, Askondo kaleko aterpean. Iurretako Gertasport kirol klubak sustaturiko ekimenak 4. edizioa izango du aurten. Baturiko diru guztia Aspanovas elkartearentzat izango da.

Egun osoko futbol jaia egingo dute, 09:00etan hasi eta 20:00ak bitartean, Gertasporteko presidente Mikel Aranguren azaldu duenez. 2010etik 2018ra bitartean jaiotako neska-mutilak parte hartzerantz deitu dituzte, herrikoak zein kanpokoak. Dirua biltzeko, euro bateko errifa aterako dute, Iurretako eta Durangoko ostalaritza establezimendu eta komertzioen laguntzari eskerrak, Gertasporteko Nerea Rebolledak nabarmendu duenez. Era berean, paella tuperra eskainiko dute, 4 euroan. Antolatzailerak oso pozik daude ekimenak duen erantzunagaz. Aurreko urteetan 80 bat neska-mutilek parte hartu zuten elkartasun txapelketa honetan.

AMOREBIETA-ETXANO
Haizetara
XVI FANFARREN, BANDEN ETA KALE MUSIKAREN NAZIOARTEKO LEHIAKETA
CONCURSO INTERNACIONAL DE FANFARRIAS, BANDAS Y MUSICA DE CALLE
CONCOURS INTERNATIONAL DE FANFARRIAS, BANDES ET MUSIQUE DE RUE
STREET BANDS, FANFARRE, AND STREET MUSIC INTERNATIONAL CONTEST

BULBALKAN MADRID
JUKEPOP BELGIQUE / FRANCE
JAZZ HUNTERS ZARAGOZA
BACK CHAT BRASS UNITED KINGDOM

GATA BRASS BAND ALMERIA
RENNIW BRASS BAND MEXICO
DIRTY DÜRÜM BAND EUSKADI
LA FANFARE SAUGRENUÉ FRANCE
HARMONY'S BRASS BAND BENIN

2023
EKAINA
23, 24, 25

www.haizetara.eus Bizkaia foru aldundia diputación foral amorebieta etxano UDALA AYUNTAMIENTO

Erorien Haranetik Jose Larrañagaren gorpuzkiak ateratzeko lanei berrekin diete

Elorriarraren familiak Aranzadiri eskerrak jakin zuen beraien senitartekoa Madrileko Erorien Haranean zegoela. Asteon Larrañagaren eta beste hainbaten gorpuzkiak ateratzen hasi dira

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

José Larrañaga Zarraoa Gazeta auzoko Aranzeta Txiki baseritik eraman zuten tropa frankistek, 18 urte zituela. Urteetan, familiak ez zuen Larrañagaren berririk izan eta, Aranzadiri eskerrak, bere gorpuzkiak Madrileko Erorien Haranean zeudela jakin zuten.

Urteetako borrokaren ondoren, 2021eko irailaren 21ean, Larraña-

garen gorpuzkiak eta beste hainbat lagunenak ateratzen hasiko zirela jakinarazi zieten senitartekoei. Baina lan horiek geldirik egon dira hilabete luzez. "Esan digutenez, helegiteren bat egon da eta horregaitik egon da geldituta. Orain, oster, epaileak lanak berrekiteko agindua eman du", azaldu du Jesus Aristegik, Larrañagaren ilobak. Larrañagaren senitartekoez du-

te esperantzarik galdu. "Osabaren gorpuzkiak aurkituko dituzten esperantza dugu. Esperantza eduki behar dugu, ezin dugu galdu", gaineratu du Aristegik. Gainera, osabaren gorpuzkiak aurkituz gero Elorrioko kanposantura ekarriko dituztela azaldu du: "Baimena eskatuta daukagu eta gorpuzkiak aurkitzen badituzte bertara ekarriko ditugu".



EITBk Jesus Aristegi (eskuman), elkarrizketatu zuen 2020an Erorien Haranean.

Durungaldea asteen



Igerilekuko tabernaren kudeaketa lizitaziora atera dute berriro Atxondon

ATXONDO | Atxondoko Udalak prentsa ohar bidez azaldu duenez, hasiera batean igerilekuko tabernaren kudeaketa behin-behinean esleitu zuten arren, prozesua berriro martxan ipini behar izan dute. Hori horrela, interesa duten pertsona edo enpresek euren eskaintzak aurkezteko aukera izango dute ekainaren 19ra bitartean.

'Ensalada de personajes' monologoa, gaur iluntzean, Amillena Arrazolako Bentan

ATXONDO | Eliana Donnola artistak 'Ensalada de personajes' monologoa egingo du gaur, ekainak 16, Arrazolako Bentan. Amillena Arrazolako Bentan izango da ikuskizun berezi hau, 21:30ean. Bertaratzen direnek zerbait jateko aukera izango dute bertan.

Iritzia

ASTEKARIA@ANBOTO.ORG • ASTEARTEA 17:00AK ARTEKO EPEA

Alkate izan, baina zeren truke?

2019ko ekainaren 15ean Ima Garrastatxuk aginte-makila hartu zuen eta aldaketaren gobernuari hasiera eman zion. Legegintzaldia pasatuta, hauteskundeak berriz. Emaizta argiak eta historikoak: EH Bilduk gora nabarmen, eta lehenengo indarra; EAJk behera, aurrenekoz galduz.

Eszenatokia, ordea, estua. Eta PPK, VOXek bere hautagaitza lagata, zinegotzia atera zuen, Bilbotik etorritako hautagai ultra batekin.

Egoera honen aurrean bi aukera ditu EAJk: herritarrek emandako bigarren postua onartu eta autokritika egin edo ultraeskuinari eskutik oratuta herritarrek horren ongi baloratu duten gobernu eta alkatea kendu.

Bakoitzaren posizio edo ideiak direnak izanda ere, berri txarra izango litzateke durangarrontzat bigarrenaren aldeko hautua egitea EAJk eta Mireia Elkoroiribek. Alde batetik, beraiek onartu dutelako ez dutela proposamenetan adostasun punturik apenas eskuin muturrarekin.

Eta bestetik, ardura handiz ikusten dugulako hemen eta Euskal Herritik kanpo eskuin muturrari nola zabaltzen zaizkion ateak. Durangoko gobernuaren giltza horrelako alderdien esku uzteak zer ondorio izango ditu? Nola eragingo du memoriaren alorrean gure herria bombardatu zutenen ondorengoei erabakitze boterea emateak? Nola eragingo du euskararen normalizazioan? Nola eskuratzea horrenbeste kostatu den emakumeen eta LGTBIQ+ kolektiboaren aurrerapausoetan?

"Deabruari arima saldu" espresioa erabiltzen da norbait onura pertsonal bat lortzearen edozer egiteko prest dagoenean. Kasu honetan, alkate izatearren gure herriaren gaineko erabakimena eskuin muturrari emateko prest legoke Mireia Elkoroiribe. Akats historikoa litzateke, eta atzerapauso handia Durangorentzat.

Aritz Bravo Zubillaga eta Mariam Bilbatua Perez, EH Bilduko zinegotzi ohiak

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).





Berrizko jaiak 2023



Berrizko jaiak 2018

Ekainak 28, eguaztena

19:00 Pregoia eta txupinazoa, Club Deportivo Berriz 50. urteurrena. Udaletxean.

Jaietako kartel lehiaketako sari banaketa udaletxean.

Ondoren, **sardina jana**.

20:00 Donien Atxa eta Dantzari Dantza entsegua. Elizondo plazan.

22:30 Akerbeltz taldeagaz erromeria. Elizondo plazan.

Ekainak 29, eguena

11:00 Margo lehiaketa umeentzat. Udaletxeko lorategian. (Euria egiten badu, eskolako patio berrian)

12:00 Meza nagusia. Ondoren, **Dantzari Dantza**.

17:00 Tiragoma txapelketa. Udaletxeko parkean.

20:00 Dantzari Dantza.

22:00 Puro Relajo. Eskolako patioan.

Ekainak 30, barikua

12:00 Tribiala (12 urtetik gorakoentzat). Udaletxeko lorategian.

12:30-14:00/16:00-19:00 Umeentzat parkea: **Jumping, puzgarriak...** Eskolako patioan.

16:30 Nesken XII., mutilen XIII. eta mistoen IV. **Frontenis Txapelketako finalak**. Olakueta frontoian.

19:00 Berrizko Udalaren lau eta erdiko txapelketako finala. Olakueta frontoian.

20:00 Luis Fercán. Elizondo plazan.

Ondoren, **DJ Roka**. Elizondo plazan.

Ondoren, **DJ Kuku**. Elizondo plazan

22:00 Kontzertua Rukula eta Chuleria, joder! musika taldeekin. Txosnagunean.

Uztailak 1, zapatua

10:00 Kuadrillen bazkarirako lekuen zozketa. Elizondo plazan.

11:30 'Txaplin' Tutik Clowns (Gari, Montxo & Joselontxo). Eskolako patioan.

12:45 Herri kirolak. Gizonezkoen Bizkaiko Trontza promozio txapelketa. Emakumezkoen Bizkaiko Trontza promozio txapelketa. Bizkaia Open Jardunaldia Iparraldeko Jokoak.

14:00 Paella lehiaketa. Udaletxeko lorategian.

18:30 Oihan Vegagaz diskofesta. Elizondo plazan.

19:00 Igel txapelketa herrikoia. (Izen-ematea 18:30 - 19:00)

22:00 Oihan Vegagaz erromeria. Elizondo plazan.

Ondoren, **DJ Blesive**. Elizondo plazan.

22:00 Kontzertua Feline eta Flash musika taldeekin. Txosnagunean.

Ondoren, **DJ Pary & Tiza**. Txosnagunean.

Uztailak 2, domeka

11:30 Umeentzako betiko jolasak. Eskolako patioan.

12:00 Meza nagusia. Ondoren, **Dantzari Dantza**.

14:00 Jubilatuentzat bazkaria. Bazkalostean, **musika**. Kiroldegian.

14:00 XI Jose Ramon Korpion Memoriala Bakailaoa Pil-pilean lehiaketa. Udaletxeko lorategian.

18:00 'Mesede bat egitearren'. Kale antzerkia. Trapu Zaharra.

20:00 Dantzari Dantza entsegua. Elizondo plazan.

20:30 Tortilla lehiaketa. Udaletxeko lorategian.

21:30 Janus Lester. Kontzertua. Eskolako Patioan.

23:00 Su artifizialak. Berrizburun.



TA
TORNILLERIA
AMEZUA S.A.

Fabrikatzaile on bat aukeratzearen garrantzia

www.tornilleria-amezua.com




GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ



pedro
juan
JATETXEA

SAN ANTONIO, 1.
48.240 BERRIZ BIZKAIA
TEL: 94.682.62.46



HIERROS
HIEZU S.A.
burdinak
eta metalak

Eitua industrialdea, 4 - 48240 BERRIZ - Tel.: 946 824 131
Faxa: 946 824 390 - hierrosriezu@telefonica.net



keinu
OPTOMETRIA ZENTROA

Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Jokabide opt
- Haurren ikus
- Ikusmenaren
- Jatorrizko eri
- Fototerapia c
- SENA entzun
- Kirol ikusmer
- Garuneko les
- Orto-k eta mi

Arkaz 3 • 48
www.keinu

Berriz Futbol Taldeak botako du txupinazoa Berrizko jaietan

Kluba bere 50. urteurrena ospatzen dabil urte osoan zehar antolatzen dabilzan ekitaldien bitartez. Taldeko kideek pozik hartu dute jaien hasieran protagonista izatea

BERRIZ • JONE GUENETXEA

Bost hamarkadatan Berriz Futbol Taldeak egindako lana aintzakotzat hartuta herriko jaietan txupinazoa jaurtiko dute. "Klubak egindako lanaren errekonozimendu lez hartu dugu", azaldu du Elena Rubio klubeko presidentek. Lan boluntarioaren bitartez taldearen zuzendaritzan egon diren eta taldean jokatu duten futbol jokalarien ahalegina aintzakotzat hartu dute jaien antolatzaileek.

Txupinazoa jaurti ostean pregoia ere irakurriko dute San Pedro eta Santa Isabel jaietako emateko. "Erabakita dugu pregoian zer esan, baina oraindino ez dugu argi klubeko nork irakurriko duen", azaldu du Rubiok.

50. urteurreneko ekitaldiak

Taldeak hainbat ekintza antolatu du urte osoan zehar urteurrena ospatzeko. Esaterako, aurten klubeko federatuen bazkaria berres-

kuratu dute denboraldi amaieran, eta urte askoan klubeko bazkide direnekin beste bazkari bat egin dute. Bestalde, taldearen historian garrantzitsua izan den jendea omendu gura izan dute. Besteak beste, 1998-1999 denboraldian ligako txapeldun geratu zen emakumeen taldea omendu dute aurten. Goretti Hernández izan zen talde hartako entrenatzailea, eta Nati Landa ordezkarria.



Ligako txapeldun geratu zen emakumeen taldearen omenaldia.



Gizonen talde nagusia.

VCG
DECOLETAJE

Vda. de Cándido Gastelurrutia, S.A.

Eitua Industrialdea, 20
48240 Berriz, Bizkaia

946 824 012 | info@vcg-decoletaje.com | 946 827 978 | www.vcg-decoletaje.com

CERAMICAS
MACOBER

ZERAMIKA ETA GRESA
DEKORAZIOA ETA APAINKETA
ERAIKUNTZAKO MATERIALA

1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA *Storri eta ikasi*

Eitua Indus., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com

express

Zengotitabengoa kalea,
BERRIZ 946 824 215

Produktu ekologikoen eskaintza

Carrefour BIO

AB AGRICULTURE BIOLOGIQUE

BERRIZ ARKITEKTOAK

Josu Oarbeasko
Patxi Ecenarro

Learreta Markina 24 behe, Berriz
T: 946 82 77 49
E: o.josu@berrizarkitektoak.com

PINTURA DEKORATIBOA
ETA INDUSTRIALA

PINTURAS
BERRIKOLOR

GAIZKA FERNANDEZ
699 009 050
GAIZKAFER78@GMAIL.COM
@gaizka_berrikolor

ETXEBARRIA
ESTANKOA

Iturritza, 14
Tel./Faxa: 946 827 958
BERRIZ

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztietako zaharberritzeak egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com

Ibai Ondo
Sarrailgintza · Burdindegia

eriza
mantentze-lanak eta instalazioak

KOMUNITATEENTZAKO
MANTENTZE ZERBITZUA
SEGURTASUN KAMARAK

Iturritza, 10 · 946 824 489 · BERRIZ · ferreteriaibaiondo@gmail.com

Apatako eta Axpeko jaiak 2023



Atxondoko jaiak 2023

Ekainak 25, domeka

Mendi martxa Apatako plazatik, eta, ondoren, luntxa Axpeko jaietan.

Ekainak 28, eguaztena

12:30 Herriko nagusientzat hamaiketakoa (izena eman behar da uztailaren 23a baino lehenago, 676 604 788 telefonoan.

18:00 Txoko txikiaren apainketa gaztetxean.

19:00 Irubidetik kalejira trikitilariekin, txopoa jasotzea, pregoia eta taloak (Atxondoko talogileak). Ondoren, **Sala eta Garazi bertso akustikoan.**

Uztailak 29, eguena

10:00 Diana txistulariekin.

18:30 Andasto dantza taldearen erakustaldia plazan.

19:00 Pintxo-potea txosnan.

19:30 Nesken pala partiduak eta bestelako pilota partiduak.

Uztailak 30, barikua

17:30 Panpontx (umeentzako makillajea, ile-apainketa, jolasak) plazan.

20:00 Herri afaria plazan (bakailao txapelketa eta patata tortilla txapelketa). Mahaiak, mantelak, aulkiak, ogia eta kafea jai batzordeak ipiniko ditu.

22:30 Laiotz taldearen erromeria plazan.

Uztailak 1, zapatua

11:30-14:30 Zintzilik emozioen laborategia (tirolinak, sareak, eskalada...) plazan. Eguerdian **kuadrillen paella eta igel txapelketa.**

17:00 Mus txapelketa (apuntatzeko, plazan).

16:30-19:30 Zintzilik emozioen laborategia.

18:30 Distopia elektrotxarangagaz kalejira.

23:00 Kontzertuak: Añube eta Iskanbila.

Uztailak 2, domeka

11:00-14:00 Artisau eta nekazari azoka.

19:00 Ume eta nagusientzat kantu-kontzertua plazan, Naita produkzioak eskutik. Ondoren, **txopoa bota eta txokolata.**

Axpeko jaiak 2023

Ekainak 23, barikua

11:30 Meza nagusia.

13:00 Herriko jubilatuentzat luntxa.

17:00 Briska txapelketa.

19:00-20:00 Pintxo potea DJ Bullek girotuta.

20:00 Txopo txikia eta handia jasotzea. Jarraian, **San Joan suak.**

22:30 Kontzertuak: Fito Skins, Nevadah eta DJ Bull.

Ekainak 24, zapatua

San Juan Eguna (Etorri andaluz jantzita).

11:30 Meza Nagusia.

12:30 Atxondoko Andasto dantza taldea. Ondoren, **igel txapelketa.**

Goizean zehar bakailao txapelketa eta patata tortilla txapelketa.

17:00 Mus txapelketa.

19:00 Eingo taldearen ekitaldia.

22:00 Alarma Morea.

Amaitutakoan, **txosnako agertokian DJak, karaoke eta guzti.**

Ekainak 25, domeka

Goizean zehar inguruko artisau erakusketa.

11:30 Meza nagusia.

12:30 Pilota partiduak.

13:00 Mus txapelketaren amaiera.

17:00 Umeentzako jolasak Kalakan taldeagaz.

Amaitzeko, **txokolatada.**

Atxondoko

Carnicería · Harategia

Produktu lokalak salgai · Kalitatezko produktuak bertatik bertara · Kalitate oneko haragia

Etxeko hanburgesak, katxopoak eta lasagnak

WhatsAppez eskaerak egin daitezke:

747 494 412

OSASUNA. ONGIZATEA ETA ZORIONTASUNA
ARGANIUM NATURAL ATXONDO

ZURE ARAZORAKO PRODUKTU
ETA SAIO
PERTSONALIZATUEN SORTA
HANDIA

@ARGANIUMNATURALATXONDO
TEL. 647891254

akebaso

akebasorestaurante.com

Jaietan zatoz gurera, eta ondo pasa San Pedroetan!

San Juan auzoa 16, Axpe - akebaso@akebasorestaurante.com - 94 658 20 60

APATA • J.G.

Aurten ere egitarau oparoa pres-tatu dute Apatako jaietarako. Ekainaren 25ean, domeka, mendi martxa egingo dute, Apatako plaza-rtatik irtenda. Baina jaien hasiera ofiziala ekainaren 28an izango da. Herriko nagusientzat hamaiketako prestatuko dute, 12:30ean. Parte hartu gura dutenek aurretik izena eman beharko dute ekainaren 23a baino lehenago, 676 604 788 telefono zenbakira deituta. Arratsaldean txopo txikia apainduko dute Gaztetxean. 19:00etan Irubidetik kalejira irtengo da, trikilariekin. Tradizioari eutsita,

Pilota partiduak ere izango dira jaietan: Xala-Azanza eta Olazabal-Apezetxea

Punk Oi! doinuak berreskuratuko dituzte jaietan, Añube eta Iskanbila taldeekin

txopoa jaso eta pregoia irakurriko dute. Aurten, Gaztetxeko belau-naldi berriak botako du pregoia. Atxondoko talogileen taloak dastatzeko aukera ere izango da. Ondoren, Salaren eta Garaziren bertsioen kontzertu akustikoa izango da entzungai.

Ekainaren 29an, arratsaldean, Andasto dantza taldearen erakustaldia izango da, eta gero pin-txo-poteoa egingo dute. Pilota par-

Añube eta Iskanbila taldeen kontzertuak Apatako jaietan

Ekainaren 28an hasiko dituzte jaiak, txopoa jasota



Bueltan da Iskanbila, 90eko hamarkadako talde arrasatearra. GOIENA

tiduak ere izango dira: Xala-Azanza eta Olazabal-Apezetxea. Nesken pala partiduak ere jokatu dira.

Ekitaldirik jendetsuenak aste-bururako utzi dituzte. Ekainaren 30ean, barikua, Panpontx umeentzako makillajea eta ile apainketa jolasak izango dira plazan, arratsaldean. Ondoren, herri afariaren bueltan bilduko dira. Bakailao eta patata tortilla txapelketetan herriko sukaldaririk onenen arteko lehia izango da. Laiotzen erro-meriagaz amaituko dute eguna.

Uztailaren 1ean, zapatua, Zintzilik emozioen laborategikoek

tirolina eta jokoak prestatuko dituzte ume eta gazteentzat, goizean eta arratsaldean. Eguerdian, paella eta igel txapelketak ere izango dira. Arratsaldea Distopia txarangak alaituko du. Gauean, Punk Oi! doinuak berreskuratuko dituzte jaietan, Añube eta Iskanbila taldeekin.

Domekan, uztailak 2, Apatako azoka izango da, inguruko artisau eta nekazarien erakusle-hoa. Arratsaldean kantu-kontzertua egin ostean, txopoa botata emango diete amaiera Apatako jaiak.



Nevadah taldea.

Fito Skins, Nevadah eta DJ Bull Axpeko oholtzan

Ekainaren 23an txopo txikia eta handia jasota hasiko dituzte Axpe auzoko jaiak, astebururako egitarauagaz

AXPE • JONE GUENETXEA

San Joan egunaren bueltan prest daukate asteburu osorako egitaraua Axpe auzoan. Ekainaren 23an, barikua, txopo txikia eta handia jasota hasiko dituzte jaiak, 20:00etan. Jarraian, San Joan suak egingo dituzte. Gauean kontzertuak egongo dira. Fito Skins talde elorriarraz gainera, Durangoko eta Mañariko kideekin osaturiko Nevadah taldea igoko da oholtza gainera. Goizaldea DJ Bullek giro-tuko du bere musikagaz.

Ekainaren 24rako, San Joan Egunerako, andaluziar jantzita joateko deialdia egin dute. Goi-

zean, meza eta Andastoko dantzariak izango dira. Jarraian, igel txapelketa eta baita bakailao eta tortilla txapelketak ere. Arratsaldean, mus txapelketa, Eingo taldearen erromeria eta Alarma Morea taldearen kontzertua izango dira. Zapatua ere DJ bategaz eta karaokeagaz amaituko dute.

Ekainaren 25ean, domeka, artisau azokagaz hasiko dute eguna. Pilota partiduak eta mus txapelketa izango dira eguerdian. 17:00etan umeentzako Kalakan taldearen jolasak prest izango dira. Txokolatadagaz amaituko dituzte jaiak.

BURDINAK, S.L.
EBAKITZE LERROA - DESAGERKETA - ZIZAILAK

Artia indus. ATXONDO Tel.: 946 583 164 Faxa: 946 583 416

BI-632 Durango
Pol. Ind. ARTIA
BI-632 Elorrio
Atxondo

Zoriontsuak izan Jaixetan!

ZUNTZ MOLDATUZKO ONTZI BIODEGRADAGARRI ETA BIRZIKLAGARRIAK

cemosa
GRUPO CELULOSAS MOLDEADAS, S.A.

Autonomía, 2
ATXONDO (Bizkaia)
Tel.: 94 623 17 17
Faxa: 94 623 17 99
www.soul-cemosa.es

DRAXTON
ATXONDO

www.draxton.com

DRAXTON **GIS**
Mobility inspired

Europako automozio balazta sektoreko osagaien ekoizpenean liderrak gara



'Kimera'

ANTZERKIA IURRETA :: Ekainak 16

Antzerkia, zirkua eta musika uztartzen dituen proposamena

La Banda Teatro-Circo konpainiak diziplina anitzeko ikuskizuna aurkeztuko du, gaur, Iurretako XVII. Kalez kale antzerki jaialdian. *Kimera*, antzerkia, zirkua eta musika uztartzen dituen ikuskizuna da, ikuslea emozio-bidaia bat egitera gonbidatzen duena; gaur egungo gizarteari begiratuta, pertsonak handi egiten dituzten gauza txiki horien hauskortasuna erakutsi gura duena. Babesik barik,

hartu-emanik barik, eta dena atzean utzita, leku ezezagun batera bidaiatzeko erabakia- ren atzean dauden arrazoiez hausnartzera eraman gura du *Kimera* ikuskizunak, zama-kai batetik; etorkizuna ziurgabe eta iluna azaldu arren, beti atzean uzten dena baino hobe izango delakoan. Ikuskizun dibertigarri eta hunkigarri hau Aita San Migel plazan aurkeztuko dute, 18:00etan.

Ekainaren 16an

ATXONDO **bakarrizketa**

'Ensalada de Personajas' (Eli Donnola), 21:30ean, Arrazolako Amillena Bentan.

ABADIÑO **erakusketa**

'Stonewalleko borroka' erakusketa eta pelikula, 19:00etan, Isiotuko lokalean.

IURRETA **antzerkia**

'Orain Bi' (Mute konpainia), 19:30ean, Askondon. Iurretako XVII. Kalez Kale egitaraua.

MALLABIA **pilota**

Bizkaia Torneoa, 20:00etan, frontoian.

Ekainaren 17an

ABADIÑO **antzerkia**

'La ternura' (TECU antzerki taldea), 19:00etan, Errotan.

BERRIZ **azoka**

BERRIZTU: Berrizko Sortzaileen Azoka, 10:00etatik 14:30era, udaletxeko lorategian.

DURANGALDEA **bertsoak**

Bertso Eguna*Ahalduntze jaia.

Bertso poteoa, 12:00etan, Durangoko Andra Mari plazatik, Ahalduntzeko parte hartzaileekin. Bertso munduko asteriskoen bazkaria, 14:30ean, Iurretako Abadetxean.

Bertso saio irekia, 17:30ean, Iurretako plazan.

eRRe ikuskizuna, 20:00etan, Plateruena kultur aterpean.

DURANGO **ikuskizuna**

'Bici Circuz' (Eli Donnola), 13:00etan, Tabira auzoan.

DURANGO **jaialdia**

Intxaurre Eguna Ekitaldia, 13:00etan, Intxaurre tabernan.

Paella banaketa, 14:30ean (aukera begetarianoa egongo da).

Bazkalostean, igel txapelketa.

Mojito dastatzea musikak girotua, 16:30ean.

Distopia elektrotzaranga, 18:30ean.

DJ Kolektiboa, 22:00etan.

DURANGO **jaiak**

Murueta Torre Auzoko jaien hasiera, 11:00etan.

Puzgarriak, zurezko jolasak eta musika kalejira, 11:30ean.

Aurpegia margotzeko tailerra, 12:00etan.

Paella lehiaketa, 12:00etan.

Gazta lehiaketa, 13:00etan.

Umeentzako animazioa eta bingo solidarioa, 16:00etan.

Herri kirolak, 17:00etan.

Akustikovers taldea, 19:00etan.

DJ Gabi, 21:00etan.

IURRETA **antzerkia**

'Two much' (Double Bill konpainia), 18:00etan, Askondon. Iurretako XVII. Kalez Kale egitaraua.

IURRETA **klown**

'Qué buen día' klown ikuskizuna (Maite Guevara), 19:30ean, Askondon. Iurretako XVII. Kalez Kale egitaraua.

Ekainaren 18an

ABADIÑO **San Antonio**

Errepetiziño domeka, Urkiolan. Baserriko produktuak, 10:00etatik 15:00etara.

Meza nagusia Leioako abesbatzagaz, 12:00etan, Santutegian.

Herri kirolak, 12:45ean.

Hodei Ezpeleta eta Eneko Otaño aizkolariak, Karmele Gisasola harria jasotzen, eta Nerea Egurrola txinga eramaten eta ingudeagaz. Iparraldeko jokoak Karlos Aretxabaletaren eskutik.

ABADIÑO **tailerra**

Tailerra eta txiki karaokea, 11:30ean, Isiotuko lokalean.

ABADIÑO **musika**

Rukula, 13:30ean, Amaraun Arte Fabrikan.

DURANGO **jaiak**

Puzgarriak, 11:30ean, Murueta Torre auzoan.

Musika kalejira, 12:00etan.

Tortilla txapelketa, 12:00etan.

Apar festa, 17:00etan.

Saltsa ikastaroa, 17:00etan, Ernesto Mirigaz.

Txokolatada, 18:00etan.

Sarien zozketa, 19:00etan.

IURRETA **magia**

'Auskalo' magia ikuskizuna (Eriz Magoa), 13:30ean, Daytona aurrean. Iurretako XVII. Kalez Kale egitaraua.

Ekainaren 22an

ABADIÑO **hitzaldia**

'Kirolaren balioak eta onurak: umetatik hirugarren adinera arte' (Hizlariak: Uri Barrutieta eta Aratz Gallastegi), 19:00etan, Mendiolako Errekatxo elkartean.

ABADIÑO **musika**

Terapia, 19:30ean, Amaraun Arte Fabrikan.

DURANGO **olerkiak**

Olerksia: Durangaldeko Sortzaileen irakurraldia, 19:00etan, Plateruena kultur aterpean. Peru Madalenak, Irati Berasategik, Unai Iturriagak eta Imanol Agirrek parte hartuko dute.

DURANGO **musika**

EguenEro: Sala eta Garazi, 21:00etan, Intxaurre tabernan.

Uztailaren 2ra bitartean

DURANGO **erakusketa**

'La Divina Commedia' (Komisarioa: Massimiliano Tonelli), Arte eta Historia Museon.

Zinema

:: Durango
ZUGAZA ZINEMA

• Flash

barikua 16: 18:00 / 21:00
zapatua 17: 17:30/20:30
domeka 18: 17:00/20:00
astelehena 19: 17:30/20:15
martitzena 20: 17:30 / 20:15
eguztzena 21: 19:00

• Operación Kandahar

barikua 16: 18:30 / 21:00
zapatua 17: 19:00 / 21:00
domeka 18: 19:00
astelehena 19: 18:00/20:15
martitzena 20: 18:00 /20:15
eguztzena 21: 19:00

• Kepler: Sexto B

barikua 16: 18:30 / 21:00
zapatua 17: 19:00 / 21:30
domeka 18: 18:30/20:30
astelehena 19: 18:00/20:15
martitzena 20: 18:00 /20:15
eguztzena 21: 19:00

• Superheroien familia

zapatua 17: 17:00
domeka 18: 16:30

• La sirenita

zapatua 17: 16:30
domeka 18: 16:30

::Zornotza
ZORNOTZA ARETOA

• La sirenita

domeka 18: 17:00 / 20:00
astelehena 19: 20:15

ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguzten eguerdia baino lehen.



SEKUENTZIA


Jarraitu sekuentziari galdera ikurra dagoen laukietan dagokion robota marraztuta.

				?		
						?
		?				
						?
	?					
?						

MARGOTU


Margotu irudia alboko koloreekin.

- 1 ■ 2 ■ 3 ■ 4 ■ 5 ■ 6 ■ 7 ■ 8 ■ 9 ■





OKAREN JOKOA

Moztu alboko koloretako fitxak eta hasierako kutxan jarri. Dado bat eta beste hiru



lagun topatu behar dituzu jolasteko.



“Literatura ez da zaletasunik popularrena, baina sortzen duzun hori konpartitu ahal izatea positiboa eta inportantea da”

Unibertsitate garaitik idazten ibili ostean, Julen Apella Santamaria berrizarrak lehehengo poesia liburua kaleratu du, Balea Zuria argitaletxeagaz



Julen Apella Santamaria

'Postal bat desertuan' liburuaren-ren egilea

BERRIZ | 1998

go batean imitatzen ahalegintzen zarela uste dut. Irakurtzeko gustuko dudana hori idazten ahalegintzen naiz. Niretzat, hori aitortza bat da, beraz. Irakurleari pistak emateko ere baliagarriak dira, poemak nondik jo dezakeen ikusi dezake eta. Zalantza ere izaten dut, erreferentzia asko ipinita zenbat irakurtzen duzun erakutsi gura duzula eman dezake eta. Baina niri gustatzen zait beste autoreek ere erreferentziak idazten dituztenean.

Batez ere, poesiara bideratu duzu sorkuntza, hortaz.

Bai, orokorrean bai. Noiz edo noiz egin dut saiakera narratibatik, baina poesiak askatasun puntu bat ematen dit hizkuntzagaz esperimentatzeko. Ez diot beti horrela denik poesian. Narratiban ere aukera asko dago esperimentatu eta gauza berriak egiteko, baina ni testuinguru horretan nago erosoan. Baita ikuspuntu praktikoago bategatik ere. Gure bizimoduan mila gauza dugu egiteko; jan, lan eta lo egin behar dugu, eta gure hartu-emanak ere baditugu; beraz, idazteko ezin da gura beste denbora atera. Ez da oso erromantiko geratuko, baina zentzu funtzional batetik begiratuta ere, poesiak aukera gehiago ematen dit, beste genero batzuekin konparatuta, Azken horiek, beharbada, diziplina edo denbora gehiago eskatzen dizkirate.

Baduzu liburua inguruotan aurkezteko asmorik?

Donostian egin nuen liburuaren aurkezpena. Hemen oraindino ez dugu ezer antolatuta, baina baliteke zerbait egitea; oraindino gatz da esateko.

Azken urteetan, Elena Olabek eta Leire Vargasek poesia liburuak aterra dituzte. Laguntzen du?

Kurioso da ikustea Durangaldean mugimendu bat sortu dela azken urteetan. Bien lana miresmenez jarraitu dut, pertsonalki ezagutzen ez ditudan arren. Orain arte, bazterrean egon naiz, zelanbait esatearren ez naiz existitu idazle modura. Publikatu dituzten liburuak ez ezik, bestelako lanak ere jarraitu ditut; adibidez, Berbaz aldizkariaren bueltakoak. Eta hor dago, nik uste, polita dena. Ez dakit belau-naldi kontu bat den, baina egia da literaturagazko zaletasuna duen talde bat batu dela, eta interesgarria da horrelakoak sortzea; literatura ez da, beharbada, zaletasunik popularrena, baina gutxi horien artean sortzen duzuna konpartitu ahal izatea positiboa eta inportantea da.

LITERATURA • ARITZ MALDONADO

Idazle gazteei publikatzen laguntzen dien Donostia Kultura saria jaso ostean, Julen Apella berrizarrak 'Postal bat desertuan' poesia liburua kaleratu du; Balea Zuriagaz argitaratu du.

Donostia Kultura saria irabazi ostean publikatu duzu lana. Igarri duzu presiorik?

Sari bat irabazteak ikusgarritasuna ematen dizu, hedabideetan agertzen zara, idatzi duzunak balioko duen galdetzen diozu zeure buruari, eta iruzurtiaren sindromea ere hor dago; beraz, presio puntu hori badagoela esango nuke. Baina nahiko modu naturalean daramadala esango nuke.

Zelan dago egituratuta liburua?

Nahikoa buruko min eman dit horrek ere. Izan ere, poema asko nituen idatzita, baina liburu bihurtzerako orduan, logika bat, koherentzia bat, ordena bat eman behar izan diot; azkenean, bata bestea-

ren atzean ilaran ipintzea erabaki nuen. Ez nuen ikusten sailkapen tematiko bat egitea, iruditzen zitzaidalako badagoela tonu komun bat edo errepikatzen dena poema askotan, eta interesgarriagoa iruditzen zitzaidan poemak arteko oihartzun horiek edo erreferentzia

Gutxi bizi gara zurian edo beltzean, eta asko mugitzen gara grisetan; eta hori, nahitaez, poemetan islatzen da

internoak irakurleak lotu behar izatea. Hori esanda, egia da badaudela sailkapen txiki batzuk ere. Esango nuke lehenengo erdikoak sozialagoak, deskriptiboagoak eta ilunagoak direla; eta bigarren zatikoak ironikoagoak, alaiagoak edo gozagarriagoak. Baina aurpegi

bi horiek ere nahiko lotuta daudela uste dut; beraz, ez da sailkapen zorrotz bat.

Idazterakoan ere, bilatu egiten dituzu alde bi horiek?

Uste dut zerbait naturala dela dualtasun hori. Gutxi bizi gara zurian edo beltzean, eta asko mugitzen gara grisetan; eta hori, nahitaez, poemetan islatzen da. Egon daitezke poema alaiagoak, ilunagoak, tonu konkretu bat dutenak, baina gehienak dualtasun horietan mugitzen dira. Ez dut uste kontzienteki bilaturiko zerbait denik, baina bai nahitaez irten den zerbait.

Gaiari dagokionez, poema bakoitza mundu bat da. Kasu batzuetan, kontzienteki edo ez, idatzi daiteke zerbait esateko, eta, horretarako, idazkera moldatuko da, eta guztiz zilegi da hori, baina, nire kasuan, ideia konkretu batetik idazten dudala esango nuke; irudi batetik, sentimendu batetik edo esaldi konkretu batetik hasten naiz sortzen, eta geroko esperimentazio eta

jolaste hori gustatzen zait. Hala ere, ez dut esan gura dena formatik eta formagaitik idazten dudunik. Beti ditut asmo konkretu batzuk, baina askatasun hori eskertzen dut, gus-turago idazten dut hortik.

Ez dakit belau-naldi kontu bat den, baina egia da literaturagazko zaletasuna duen talde bat batu dela, eta interesgarria da horrelakoak sortzea

Erreferentzia ugari egiten duzu poemetan; baina zitetan ere, zineari, musikari, literaturari...

Bai, hainbat dago. Alde batetik, aitortza lez egin dut. Uste dut inork ere ez duela zerotik sortzen. Zuk erreferentzia batzuk dituzu, gustuko autore batzuk, eta inkontzienteki, esplizituki edo forma inplizitua-



Aitor Iriarte 'Lobo', Julene Lazkano eta Idoia Buruaga Musikaireren aurkezpena.

Elorrioko Musikaireren 23. edizioa uztailaren

Hamalau emanaldik osatzen dute aurtengo Musikaire

MUSIKAIRE • ARITZ MALDONADO

Elorrioko Musikaire jaialdiaren 23. edizioa uztailaren 7tik 29ra egingo dute. Besteak beste, Verde Pratok, Neomakek, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pila-zoek, eta Ruper Ordorikak egingo dituzte emanaldiak; hamaika egunetan hamalau emanaldi egongo dira. Azken urteetan lez, dantza garaikide ikuskizunak ere egongo dira. Iaz ez bezala, plazan eta Lariz jauregian egingo dituzte kontzertuak; Ganondo parkean egin zituzten iaz. Bestalde, Elorrioko Udalak bere ekarpen ekonomikoa %30 igo behar izan duela jakinarazi zuen martitzene-

ko prentsaurrekoan. "Kulturaren aldeko konpromisoagaitik eta Musikaireren kalitate mailari eusteko, Elorrioko Udalaren diru partida handitu behar izan dugu, Aldunditik geroago eta diru gutxiago jasotzen dugulako", salatu zuen Idoia Buruaga jarduneko alkateak. Guztira, 90.000 euro inguruko aurrekontua du egitasmoak, eta horietariko 65.000 euro inguru Elorrioko Udalak ipintzen ditu. "Aitzindariak izan gara Durangaldean udan horrelako eskaintzagaz, eta herritarrek estimu handia diote Musikaireri", gehitu zuen Julene Lazkano zinegotziak.

MUSIKAIRE 2023

- Uztailak 7, **Deabru beltzak**, 22:30ean, plazan.
- Uztailak 8, **Neomak**, 22:30ean, plazan.
- Uztailak 9, **Pirritx, Porrotx eta Marimotots**, 22:30ean, plazan.
- Uztailak 14, **Antonio Lizana**, 20:00etan, Lariz jauregian.
- Uztailak 15, **Verde Prato**, 20:00etan, Lariz jauregian.
- Uztailak 16, **Ruper Ordorika**, 20:00etan, Lariz jauregian.
- Uztailak 21, **Soul Teller**, 22:30ean, plazan.
- Uztailak 22, **O syster**, 22:30ean, plazan.
- Uztailak 23, **dantza garaikide ikuskizunak**, 19:00etan, plazan.
- Uztailak 28, **Janus Lester**, 22:30ean, plazan.
- Uztailak 29, **Nico Wayne**, 22:30ean, plazan.

'Kimera'-k emango dio hasiera Iurretako Kalez Kale jaialdiari

Asteburuan Iurretako XVII. Kalez Kale antzerki jaialdia egingo dute; bost emanaldik osatzen dute jaialdia

ANTZERKIA • AITZIBER BASAURI

Nafarroako La Banda teatro-zirku konpainiak emango dio hasiera, barikuan, Iurretako Kalez kale antzerki jaialdiaren 22. edizioari. *Kimera* ikuskizun berritzailea aurkeztuko dute bertan. Horren ondoren, Mute antzerki talde arabarrak *Orain Bi* ikuskizuna egingo du. "Ikuskizun berritzailea da *Kimera*, eta egitura erraldoia eta magikoa erabiliko dute publiko zabalari zuzenduriko obra honetan", azaldu du Oscar Castaño

'Garbitxu' jaialdiko koordinatzaileak. Ekainaren 17an, zapatua, Double Bill konpainiaren *Two much* eta Maite Guevararen *Qué buen día* klown ikuskizunak emango dituzte; Guevara Euskal Herriko lehenengo klowna da, eta hainbat urtez ahalegindu ostean, Iurretan egongo da azkenean. Domekan, Eriz magoaren ikuskizunak itxiko du jaialdia. Urte hauetan, 100 konpainia eta 550 aktore baino gehiago etorri dira Iurretara.



Oscar Castaño "Garbitxu", Iñaki Totorikaguena eta Pilar Jiménez Kalez-Kale aurkezten.

Gai librean

Kultura eraldaketarako ezinbesteko arma

Kultura eraldaketa sozialerako eta pertsonalerako tresna indartsua da. Kulturak zenbait adierazpenen bidez (arteak, musika, literatura, zinema, dantza...) munduan pentsatzeko eta jarduteko moduaz hausnartzera, zalantzan jartzera eta aldatzera gonbidatzen gaitu. Ildo horretan, ezarritako egiturei aurre egiteko, berdintasuna eta justizia sustatzeko eta gizarteko kide garelako zentzua eta elkartasunaren zentzua sortzeko arma bihurtzen da kultura.

Lehenik eta behin, kulturak erronka egiten die arau eta balio nagusiei, ezarritako pentsamoldeak eta portaerak zalantzan jartzen baititu. Artearen eta adierazpen sortzailearen bidez gai tabuak jorratzen dira, bidegabekeriak kritikatzeko dira eta ideia eta ikuspegi berriak aztertzen dira. Horri esker pertsonak bo-

tere-egiturak eta zapalkuntza-sistemak zalantzan jarri ahal dituzte, eta horrela mundu bidezkoago eta berdinago baten bilaketa sustatzen da.

Gainera, kulturak gizarte-kontzientzia sortzeko eta enpatia sustatzeko ahalmena du. Filmek, liburuek eta antzezlanek, adibidez, beste pertsonen bizitzetan eta esperientzietan murgildu gaitzakete, eta horrela norberaren ulermena zabaltzen da eta errazago hurbildu gaitzake deneriko errealitateetara. Horrek desberdintasunei aurre egiteko eta justizia sozialaren alde borrokatzeko ekintza zehatzak hartzera bultzatzen gaitu.

Kulturak badu gaitasuna pertenezia-zentzua sortzeko eta nortasun kolektiboak eraikitzeko ere. Komunitate bakoitzaren tradizioen, musikaren eta kultura-adierazpenen bidez komunitate-zentzua indartzen da, eta kultura-aniztasuna errespetatzea eta balioestea sustatzen da. Horrek

gizarte inklusiboagoak eta errespetuzkoagoak eraikitzen laguntzen du, non ahots eta adierazpen guztiak airtortzen eta ospatzen diren.

Era berean, kulturak aldaketa-eragile gisa joka dezake maila pertsonalean. Arteak eta kulturak geure pentsamenduak, emozioak eta esperientziak aztertzeraz gonbidatzen gaituzte, nor bere burua aurkitzeko eta hazteko prozesua erraztuz. Literaturaren, musikaren edo dantzaren bidez inspirazioa, arnasa eta motibazioa aurki ditzakegu erronkei aurre egiteko, oztopoak gainditzeko eta geure buruaren bertsio osoagoak eta benetakoagoak izateko.

Eta horretan ari gara Astarloa Kulturegintza osatzen dugun San Agustín Kultur Gunea, Arte eta Historia Museoa, Plateruena Kultur Aterpea, eta Bizenta Mogel biblioteka, herritarren bitzita hobe baten alde lanean.



Esti Albizu Goikoetxea
Bizenta Mogel biblioteka



Naroa Mendazona Etxaniz

Boleibol jokalaria
DURANGO | 2006

Irene Antxia García

Boleibol jokalaria
DURANGO | 2006

“Hainbeste gazteri boleibolean aritzeko aukera eman diegula sentitzea pozgarria da”

Sapuherrri boleibol klubak lau talde ditu gaur egun, eta datorren denboraldira begira beste bi sortzea itxaroten dute

BOLEIBOLA • JOSEBA DERTEANO

Irene Antxia eta Naroa Mendazona gazte ekintzaileak dira, boleibol jokalariek ez ezik. 2021ean, 15 urteagaz, Sapuherrri taldea berreskuratu zuten, eta horri eskerrak 65 gazte Durango boleibolean aritzeko aukera dute gaur egun. Baina ez dira konformak. Domekarako Sapuherrri Eguna antolatu dute, kluba ezagutarazteko, eta datorren egunean ate irekien jardunaldia egingo dute boleibola probatu gura duten umeentzat.

Zelan zaletu zineten boleibolera?

Irene Antxia: Nire osaba, Eduardo García, Superligako talde bateko fisioterapeuta da, Haron (Errioxa), eta Logroño talde batean jokatzen dabil. Berak erakutsi zidan boleibolean jokatzen, udetan. Zaletu egin nintzen eta Naroari klub bat sortzea proposatu nion.

Naroa Mendazona: Gimnasia klaseetan boleibola probatua nuen arren, ez nuen Irenek zeukan praktika. Baina gustatzen zitzaidan eta "zer gaitik ez?" esanda, aurrera egin genuen.

Urte bi eskasean hainbat talde sortzea lortu duzue.

N.M.: Une honetan lau talde ditugu: nesketan, gazteetako eta kadeteetako bana; mutiletan, kadeteetako; eta laugarrena talde mistoa da, kimuekin eta haurrekin osa-

turikoa. Datorren denboraldira begira beste talde bi sortzea aurreikusten dugu.

Sortu berria den proiektuak hain harrera ona izatea itxaroten zenuen?

I.A.: Hasieran, talde bat sortzeko lagunak batuta konforme ginen, eta orain 65 gazte dabilta boleibolean. Ez genuen hain harrera ona espero.

Klub bat aurrera eramateak lan handia eskatzen du, arlo askotan. Zein izan da erronkarik gaxena?

I.A.: Nire ustez, egiten den guztiaren erantzukizuna norberak duela da erronkarik gaxena edo zamarik astunena. Talde batean zeozer gertatzen bada gure erantzukizuna dela sentitzen dut.

N.M.: Motxila horrek pisua du, baina guri beti gustatu izan zaigu gauzak antolatzea, eta gustura gabiltza.

Eta zerk ematen dizue poztasunik handiena?

I.A.: Lehenengo eta behin, guri gustatzen zaigun kirola egiteko aukera dugula. Horrez gainera, aurten umeen entrenatzaileak izan gara eta "eskerrik asko gu entrenatzeagaitik" esaten diguten bakoitzean poz handia hartzen dugu.

N.M.: Guk sorturiko zerbaitek hainbeste gazteri boleibolean aritzeko

aukera ematen diela sentitzea pozgarria da. Ahalegin guztiak merezi duela sentitzen dugu.

Aurten boleibol liga jokatu duzue, lehenengoz. Zelako esperientzia izan da?

I.A.: Oso ona. Gure ligan multzo bi zeuden. Hasieran, lehenengo multzoan egon ginen, gu baino askoz ere esperientzia handiago taldeen kontra. Esperientzia falta gogoagaz estali dugu eta

partidu lehiatuak jokatu ditugu. Ondoren, bigarren multzoan hirugarren geratu gara, lehenengo biek berdin dute.

N.M.: Askok ikasi dugu. Hobekuntza nabarmena egin dugula uste dugu.

I.A.: Klubeko entrenatzaileei asko zor diegu. Gure taldekoa Gorka Oiarzabal da. Sasoi batean, gizonen Sapuherrri taldean aritzen eta berari proposatu genion.

Oso pozik gaude beragaz. Mutil kadeteen entrenatzailea ere Sapuherrin ibilitakoa da: Benjamin Legarra. Neska kadeteen entrenatzailea Iratxe Maiztegi da, hau ere boleibolean jokatzen ibilitakoa eta taldeko jokalarit baten ama.

Zuek ere ibili zarete umeen entrenatzaile. Zelakoa da irakasle izate hori?

N.M.: Hiru entrenatzaile hoguei umegaz ibili gara. Pozik, baina batzuetan ez da erraza ordena ipintzea. Ez dira geldirik egoten!

I.A.: Ahotsik barik geratu gara baten baino gehiagotan (barrez). Baina azkenean kariño handia hartzen diezu.

Boleibolean zer da ikasteko gaxena?

N.M.: Kirol konplikatua da. Pare bat urte behar dira teknika menperatzeko. Baloari besoekin gura duzun norabidea ematea ez da batere erraza.

I.A.: Taldeko jokalarien arteko komunikazioa ere asko landu behar da, une oro baloiaren bila nor doan jakiteko. Gauzak oso argi izan behar dira.

Hurrengo denboraldirako izen-emaitea hasita dago. Interesatuta daudenek zer egin dezakete?

I.A.: 2010etik 2014ra arte jaiotako neska-mutikoen bila gabiltza; haur-kategoriak kimu mailara artekoak. Interesatuek durangoboleifemeninoa@gmail.com helbide elektronikora edo Instagrameko gure kontura idatzi dezakete.

N.M.: Domeka honetan, 11:00etatik 15:00etara, Sapuherrri Eguna ospatuko dugu Maristak ikastetxean. Interesa duen edonor bertaratu daiteke. Lagun arteko partiduak, zozketak, Sapuherrri Sariak eta luntx bat egongo da denentzat.

I.A.: Horrez gainera, ekainaren 22ko egunean, 17:00etan, ate irekien jardunaldia egingo dugu Maristetan, 2010etik 2014ra bitartean jaiotako umeentzat. Probatu gura duten guztiak gonbidatuta daude.



Irene Antxia eta Naroa Mendazona Sapuherrriko gazte mailako taldekideekin.

Bidezabaleko neskek eta Durango Kirol taldeko mutilek atletismoko Lehenengo mailan jarraituko dute beste urtebetez

Bidezabalek 25 urte daramatza Ohorezko Mailaren eta Lehenengo Mailaren artean dantzan; DKTk hirugarren urtez jarraian lortu du onenekin jarraitzeko eskubidea



Bidezabaleko emakumeen taldea lorpena ospatzen.



Durango Kirol Taldeko gizonak mailari eutsi ostean.

ATLETISMOA • J.D.

Durangoko atletismo pistan kalitate handiko atletak entrenatzen dira. Batzuk eskualdekoak dira, beste hainbat Bizkaitik edo kanpotekoak datoz, baina denak Bidezabalen edo Durango Kirol Taldearen (DKT) elastikoagaz lehiatzen dira eta Durango erreferentzia bihurtu dute estatu mailako atletismoan.

Espainiako klubaren arteko txapelketa amaitu berri da eta Bidezabaleko emakumeek nahiz DKTko gizonak Lehenengo Mailari eutsi diote. Ohorezko Maila baino ez dago horren gainetik.

kilometroko martxan, Julene Bouzok altuera-jauzian eta Cristina Teixeirak pisu-jaurtiketan lorturiko garaipenak funtsezkoak izan ziren helburua lortzeko. "Maila nagusi bietariko batean egotea arrakasta da guretzat eta oso pozik gaude", adierazi du Juan Ignacio Hernández Bidezabaleko ardura-dunak.

DKTk Durangoko atletismo pistan egindako jardunaldian lortu zuen mailari eusteko helburua

Abaitua, Rios, Bouzo eta Teixeiraren garaipenak funtsezkoak izan ziren Bidezabalentzat

Bidezabalek 25 urte daramatza goi mailan. Ohorezko Mailan ere ibilitakoa da hainbat urtetan. Urterik urtera, atleta batzuk joan eta berriak etortzen dira eta, gorabehera horretan, Lehenengo Mailari eusteko borrokan aritzea egokitu zaie aurten. Valladoliden lortu zuten helburua, joan zen asteburuan. Adriana Abaituak 100 metroko proban, Laura Riosek 5

DKT, Durangon

Durango Kirol Taldeko gizonentzat eremu berria da oraindino Lehenengo Maila. Orain hiru urte probatu zuten lehenengoz, eta ez dute handik jaisteko asmorik. Hauek ere joan zen asteburuan lehiatu zuten azken jardunaldia. Etxean aritu ziren, astero erabiltzen duten Durangoko atletismo pistan. Aurreko jardunaldietan gura baino puntu gutxiago batu ostean, DKTk egun borobila behar zuen mailari eusteko, eta halaxe gertatu zen: hainbat garaipen eta bigarren postua lortu zituzten, eta Lehenengo Mailako JOMA Ligari eutsi zioten.

Jokaldia

Sariak

Munduko futbol txapelketan, urrezko garaikurra; Roland Garros tenis txapelketan, entsalada-ontzia; Paris Roubaix txirrindularitza lasterketan, galtzadaha-harri bat. Horra hor kirol profesionaletako sari ezagunenetariko batzuk. Umetan atletismoan ibili nintzen eta orduko sariak trofeoak ziren, kopak. Eta dominak. Mendi lasterketan, ia inon ere ez dut ikusi irabazleei kopa ematen. Nire gusturako, gaur egungo sariak askoz ere erakargarriagoak dira. Egurrezko garaikurrak dira asko, arte lanak: mendi itxurakoak, korrikalari itxurakoak... Halako batzuk ondo gorde-ta ditut, Anbotoko Kilometro Bertikalekoak, esaterako.

Beste era bateko sariak ere ikusi ditut han-hemenka, asko oso kuriosoak. Japo-



Oihana Azkorbebeitia Urizar
Mendi lasterketak

Gaur egungo sariak askoz ere erakargarriagoak dira. Egurrezko garaikurrak dira asko, arte lanak

Azken sarietariko bat, Asturiasen, baserritarrek behiak batzeko erabiltzen duten aulkitxo bat

nian, aitzo luze eta zorrotz-zorrotz bana eman ziguten, eskuetan edukitzeak bedurra ere ematen duena. Italiako lasterketa batean, ia ni baino handiagoa den bidaia-maleta bat eman zidaten. Arran erraldoia ere ekarrita nago, non sartu ere ez dakidana. Azken sarietariko bat, Asturiasen, baserritarrek behiak batze-

ko erabiltzen duten aulkitxo bat, IKEAn aurkituko ez duzuen horietariko bat, Andoni Egañak txapelketa nagusi batean polito bota zuen moduan. Sari politikak dira, erabilgarriak batzuk, baina gurago ditut eskuz egindakoak. Askoz ere ilusio handiagoa egin zidan Etxera Trailen euskal preso politiko batek eskuz egindako garaikurra jasotzeak orain urte batzuk, edo Ubidestroi lasterketan gure osaba Angelek landuriko urretx makila.

Azkenaldian, Euskal Herriko probetan bertako ekoizleen produktu ekologikoak dira sariaren parte bat. Sari ederragorik! Gainera, zero kilometroko elikagai horien bitartez, aztarna ekologikoa txikiagoa da eta tokiko ekonomia alde egiten dugu. Baina, jakina, euskaldunontzat sari nagusia, preziatuen, txapela da, txapel beltz handia, bere bordatuekin. Txapeldunari, txapela.



DURANGALDEKO TXOKOAK



Iturri Zuri, Oizera bidean ur freskoa edateko lekua

Eguzkiaren berotasunak egarria sortu dion bidaia-arentzat derrigorrezko geldialdia izaten da Iturri Zurikoa. Ur freskoa bidean aurrera egiten laguntzen du. Bertan dabil-tzan abereek eta basoko animaliek ere gustura edaten dute ura inguruko asketatik.

astola

ikerketa eta historia

DURANGALDEKO
URTEKARIA

Gertuko historia istorio bihurtuta entzun



FELIX ARKARAZO
irakurtaldia
GEHI ZAZPI
biolontxelo taldea
KARRIKA
antzerki taldea

ASTOLA PODCAST AURKEZPENA

Ekainak 21 – 20:00

Gerediagako Foru Zelaian

Eusko Label produktuekin amaituko dugu urteko egunik luzeena





ETXETXO
INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ez. • 48200 DURANGO



ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguedado.com
inmoduranguedado@gmail.com



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es



ASKATASUN ETORBIDEA
Erdi berria. 3 logela eta 2 komun. Bizitzen sartzeko moduan. Garajea eta ganbara.
335.000€ C.E.E= G



HERRIKO GUDARIEN
110 m². 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Etxebizitza handia.
260.000€ C.E.E= F



LANDAKO
100 m². Sukaldea eskegitokiarekin, 3 logela, 2 komun eta egongela handia. Argitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. Ikuspegi ederrak.
350.000€ C.E.E= E



MATIENA
3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Igogailua.
159.000€ C.E.E: E



DURANGO
Atikoa. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Guztiz barriztatua. Bizitzen sartzeko moduan.
165.000 € C.E.E= E



DURANGO
Familiabakarrekoa. 4 logela eta 4 komun. 330 m². Lorategia. Terraza eta solariuma.
615.000€

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Herriko Gudarien kalea.

3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, despentsa eta 2 komun. Garajea. Trastelekua. Ganbara.

DURANGO: Astepe auzunean. 3 logela, egongela, sukaldea, eskegitokia eta 2 komun. Garajea eta trastelekua. Argitsua. Pisu altua.

DURANGO: Antso Estegiz. Izugarritzko adosatua salgai. 3 logela eta 4 komun. Lorategia. Terraza. Txokoa. Ezin hobea.

ABADIÑO

ABADIÑO: Iturritxo kalea. 3 logela, 2 komun, egongela-jangela, sukaldea eta despentsa. Ganbara. 2 garaje eta 2 trasteleku.

BERRIZ

BERRIZ: 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta trastelekua.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

IURRETA: Orozketa auzoa. Baseri erdia salgai. Ikuspegi zoragarria. 3.000 m²-ko lursailarekin. Durangotik oso gertu.

BERRIZ: Andikona auzoa. Baseri ikusgarria, berriztatuko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baseri ederra. Berriztatuko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

ATXONDO: AXPE. Baseri ederra salgai. Berriztatuko. Kokapen izugarria

ATXONDO: ARRAZOLA. Izugarritzko baserria salgai. 40.000 m²-ko lur saila. Berriztatuko.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatuko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatuko.

//BULEGOAK ALOKAIUAN

ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

www.inmoduranguedado.com



DURANGO
35 m²
1 logela
KALEBARRIA: 35 m². Egongela-sukaldea, logela eta komuna. Hirugarren solairua igogailurik gabe. Etxe osoak kanpora ematen du. Erdialdean kokatua. Ganbara. Gas naturala. Inbertsio moduan egokia. ITE-a orainsu pasatakoa.
79.000 € C.E.E: E



DURANGO
58 m²
3 logela
TABIRA: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du (hego-ekialde-iparralde). Argitsua. Herriko irteeratik gertu. Berriztatua. ITE-a orainsu pasatakoa. Komunitateko garajea.
184.000 € C.E.E: G



DURANGO
86 m²
3 logela
ASKATASUN ETORBIDEA: Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Etxe erdiak kanpora ematen du (iparralde). Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzueguneak. Garajea eta 8 m²-ko ganbara. Bizitzen sartzeko moduan.
335.00 € C.E.E: Bidean



DURANGO
98,9 m²
3 logela
ASKATASUN ETORBIDEA - ALLUITZ: 1.993. urtean eraikia. Egongela handia. sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta 2 despensa. Balkoi itxia. Etxe osoak kanpora ematen du. (Ekialde-mendebalde-iparralde) Argitsua. Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzueguneak. Ezin hobea. Ganbara eta garajea.
334.000 € C.E.E: Bidean
Garaje itxia aukeran + 65.000 €.



MATIENA
ERAIKUNTZA BERRIA: 91,05 m²-tik aurrera. 3 eta 4 logela. Kalitate oneko materialak. Garajea eta trastelekua barne. Estreinatuko.
254.900 €-tik aurrera



ABADIÑO
33,66 m²
1 logela
SAN TROKAZ: + 122 m²-ko lursaila. Egongela - sukalde jantzia, logela eta komuna. Etxe osoak kanpora ematen du (hego-mendebalde). Argitsua. Zonalde berdeak eta aparkatzeko erraztasuna. Egoera onean.
164.000 € C.E.E: Bidean

//DURANGO

ANTSO EZTEGIZ KALEA: 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Ganbara. Igogailua. **LEHEN 190.000 € ORAIN 178.000 € / E.Z=F**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € ORAIN 298.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea eskegitokiargaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000€ ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**

BARRENKALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Berriztatuko. **LEHEN 150.000 € ORAIN 138.000 € / E.E.Z=G**

JOSEMIEL BARANDIARAN: Logela, egongela, sukaldea balkoiarekin eta komuna. igogailua. garajea eta trastelekua. **300.000€ / E.E.Z=D**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

JUAN DE OLAZARAN: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeke 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 550.000 € ORAIN 495.000 €**

//ABADIÑO

MUNTSARATZ AUZO: Baserria. 2.750 m²-ko lur sailarekin. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara eta balkoia. **LEHEN 390.000 € / ORAIN 350.000 E.E.Z=D**

//BERRIZ

BERRIZBEITIA: 2 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta komuna. Balkoia. **LEHEN 95.000€ ORAIN 85.000€ / E.E.Z=G**

MURGOITIO AUZO: Berreraikitzeke baserria lurzoruagaz. **290.000 €**

PADURE: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. **LEHEN 125.000€ ORAIN 99.300 € / E.E.Z=F**

//GARAI

MOMOITIO AUZO: Etxebizitza eraikitzeke lursailak. Aukera ezberdinak.

//IURRETA

DANTZARI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **153.000 € / E.E.Z=E**

//IZURTZA

ELIZALDE AUZO: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 € / E.E.Z=E**

//OTXANDIO

ZELAIETA AUZO: Baserria. 40.355 m²-ko lursaila. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. **LEHEN 348.000€ / ORAIN 280.000€ E.E.Z=G**

//ZALDIBAR

BOLATOKI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. **130.000 € / E.E.Z=G**

//GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO

Durango eta lurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuarekin.

//BERRIAK - DURANGO

ANTSO EZTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara. Igogailua. Bizitzen sartzeko moduan. **260.000 € / E.E.Z=E**

Botikak

BARIKUA, 16 · 09:00-09:00

SARRIA,
SASIKOA 17 - DURANGO

GUTIERREZ,
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 17 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA,
MURUETATORRE 2C - DURANGO

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-13:30

SARRIA,
SASIKOA 17 - DURANGO

CAMPILLO,
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

DE DIEGO,
INTXAURRONGO 22. - DURANGO

BAZAN,
URIBARRI 5 - DURANGO

BALENCIAGA,
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

GAZTELUMENDI,
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

NAVARRO,
ARTEKALEA 6 - DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA,
BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA,
TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO

GUTIERREZ,
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

GOIRIA,
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

MELERO,
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN,
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 18 · 09:00-09:00

CAMPILLO,
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 19 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI,
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 20 · 09:00-09:00

ETXEBARRIA,
MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 21 09:00-09:00

BAZAN,
URIBARRI 5 - DURANGO

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 22 · 09:00-09:00

DE DIEGO,
INTXAURRONGO 22. - DURANGO

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AKARTEKO EPEA



Zorionak guztioi!

GOZATU GOZOTEGIA

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11. DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozotegia
gozaturgozotegia



Zorionak kuadrillako mendizaleari! Egun ona pasau eta mosu handi bat!



Zorionak, **Chloe** eta **Nare!** Aste hau urteko asterik intentsuena izatearen arrazoia zaretelako. Eta gure egunerokotasuna momentu ederrekin betetzeagatik, mila mosu etxekuen partez.

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 17° / 28° ☁

ASTELEHENA ↓ 17° / 24° ☁

EGUAZTENA ↓ 15° / 23° ☁

DOMEKA ↓ 17° / 23° ☁

MARTITZENA ↓ 16° / 25° ☁

EGUENA ↓ 16° / 23° ☁

UDAKO MAILEGUAK

IRAILAREN 1BRARTE

Nobedadeak eta beste Biblioteketako materialak izan ezik



"Goitibeheragaz askatzen den adrenalinalak erakartzen gaitu"

Oier Letamendiak eta Joseba Herrerosak adrenalina askatzeko bitarteko ezin hobea topatu dute goitibeherekin. Biak Aldatsa Zaldibarko Goitibehera Elkarteko kideak dira.



Oier Letamendia Mendez

Aldatsa elkarteko kidea
ZALDIBAR | 2002

Joseba Herreros Azeleta

Aldatsa elkarteko kidea
ELORRIO | 1998

ZALDIBAR • AITZIBER BASAURI

Euskal Inertzia Koparako puntuagarria den Zaldibarko II. Goitibehera Jaitsiera antolatzen buru-belarri daude Oier Letamendia eta Joseba Herreros. Zapatuan Goierrri auzoan izango dute hitzordua, 16:00etan, eta biek parte hartuko dute. Euskal Kopan taldeko sailkapenean 3. postuari eustea dute erronka nagusia (@aldatsa_goitibeherak).

Nondik datorkizue zaletasuna?

Oier Letamendia: Txikitatik ibili naiz patinetean, bizikletan... Betidanik gustatu zait abiadura. Eta pandemiaren ondoren, herrian jai alter-

natiboak prestatzen genbiltzala, norbaitek bota zuen ea zergaitik ez genuen goitibehera jaitsiera antolatzen. Orduan, lagun baten taillerrean goitibeherak muntatzen hasi ginen, eta harrezkero profesional bihurtu gara (barrez). Orduan sortu nuen Akerbeltz, nire lehenengo goitibehera. Orain, lau ditut.

Joseba Herreros: Umetatik izan ditut goitibeherak, errodamenduzkoak. Lehenengoa sei urtegar, osabagaz egindakoa. Eta iaz trizikloa muntatu nuen Durangoko jaitsierarako. Hortxe berotu nintzen kontuagaz. Orain, triziklo bi ditut etxean.

Zerk erakartzen zaituzte gehien?

J.H.: Askatzen den adrenalinalak.
O.L.: Abiadura, adrenalina askatzea... gustatzen zaigu. Minutu biko

Durangaldean baliteke zaletasun handirik ez egotea. Baina Euskal Herrian berreskuratzen dabilela esango nuke

jaitsieran gurgipen zarata baino ez da entzuten, eta sentsazio hori egundokoa da!

Goitibehera mota asko dago?

O.L.: Bai, goitibeherak eboluzionatu egin du, denak lez. Euskal Inertzia Kopan lehiatzen gabiltza gu, Euskal Herrian dagoen lehiaketa nagusian, eta gurgipen materialaren araberako bost kategoria ofizial daude. Librean ere lehiatu daiteke.

Zenbateko abidura hartu daiteke?

J.H.: Handia! Speed Trike edo trizikloen mailan lehiatzen naiz, eta azken jaitsieran 58 kilometro orduko abiadura hartu nuen, batez beste. Baina egon ziren 100 kilometro orduko hartu zutenak.

O.L.: Gehienez, 101 kilometro orduko abiadura hartu daiteke, eta hartu izan dut abiadura hori. Dena dela, arau batzuk daude segurtasuna bermatzeko. Balazta egokiak izatea, gorputz osoa babestuta joatea, kasko integrala eramatea...

Goitibeherarekin hartu ditugun sustoek ez gaituzte kikildu, gehiago motibatu gaituzte

Galduta zegoen zaletasuna berreskuratzen dabilela esango zenukete?

J.H.: Bai. Durangaldean baliteke zaletasun handirik ez egotea. Baina Euskal Herrian berreskuratzen dabilela esango nuke. Apurka ari gara jendea motibatzen.

Helburu horregaz jaino zen Aldatsa?

O.L.: Goitibeherak euskal kulturaren parte dira eta izango dira. Eten bat izan zen, baina orain zaletasun hori era profesional batean berreskuratu gura dugu. Serioago, abiadura gehiago hartuta, baina berdin disfrutatuz. Goitibeherak ezagutarazi gura ditugu, eta jendea probatzera animatu.

Izan duzue sustorik?

J.H.: Bai. Apurturiko trizikloa konpondu ere egin dugu, hurrengo egunean erabiltzeko. Ondorengo txanda astiroago egingo dugu agian, baina hurrengo lehiaketarako istripua ahaztuta izaten dugu.

O.L.: Orain gutxi horma bat jo nuen. Koltxoi bat zegoen arren, kolpe ederra hartu nuen. Baina hartu ditugun sustoek ez gaituzte kikildu, gehiago motibatu gaituzte.

Lauhortza

Ibai Zabala Gandarias irakaslea



Beste bat arte, irakurle

Tokikoak globalizatuaren plaza inbadi dezake, hori dela-eta nahi dute lehena ixilik, bazterreko. Hizkuntza azpiratuak hizkuntza zapaltzaileari aurre eginez jartzen du azken honen hegemonia kolokan, hargatik nahi dute bera otzan, esaneko. Hitzak askatasuna ematen du, horregatik nahi gaituzte mutu, gatibu. Eta nik horregatik guztiagatik erabaki nuen Anboton zutabegile gisa aritzeko proposamenari baiezkoa ematea: tokitik eta euskaraz elikatzen gaituelako. Eta zer hoberik horren konplize izatea baino.

Bi urteko ibili honetan, asko eta askotarikoak izan dira zutabeetarako hautatu ditudan mintzagaiak. Mintzagai horiei begira jarriz sortu zaizkidan pozez eta, batez ere, kezkez hausnartzen eta horiek guztiak testu bakoitzean egoki josten saiatu naiz, baita beren bidez irakurleari gogoetarako bide bat zabaltzen ere. Errutina deitzen dioten eguneroko sorgin-gurgipen horretarako tartea ere falta baitugu: pentsatzeko, hausnartzeko denbora.

Baina bide horretan alhora egitea tokatzen zait orain, lan instituzionala eta aste-kari bateko zutabegintza ez baitira bateragarriak askoren begietara; ez dadin interes desberdinen arteko talkarik egon, inork ez ditzan hedabide bikain honen izena eta izana zalantzan jar.

Lekunberriko musika talde batek honakoa abesten zuen: "Hasi eta bukatu egiten diren gauzen multzo horretan dago maitasuna". Bada, nik maitasuna ez, baina maitasunez gordeko dut motxila horretan Anboton zutabegile lez jardun dudana garai hau; herri eginez. Mila esker eta beste bat arte, irakurle.

SAN ROKE BARRIA
DURANGO

SALMENTA BULEGOA Astxiki kalea 1, Durango

Ludoteka Gimnasio

225.000€-tik aurrera+BEZ

Udazkenean obra hasiera

KALERATZE
prezio bereziak

sukia 946 46 20 41
Zure etxean zaude. Estás en tu casa. www.sukia.com